

243. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2021EKO AZAROA

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

LANDETA

AUZOA KORAPILO



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
bazterre-015010121

www.urrategiinteriorismo.com
Arraquelu 27 Anetzko 9
20600 Eibar 20730 Aspetio

MILAR
LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak


**Cooking
& Chef**
SUKALDE GUNEA

dyson v8
animal

XURGAGAILUA

Lehen 399 €

Orain 349 €



dyson ETXEAK DITU MERKATUKO
XURGATZAILE ONENAK,
eta **MILAR LARRAMENDIN**
BAKARRIK AURKITUKO DITUZU

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 • AZKOITIA •  943-85 21 10 • www.biyona.net



UZTARRIA 243

2021EKO AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:

ALEX BERASATEGI



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Mailo Oiarzabal, *Ondo pasatu!*
- 6 **Zu zeu** Ane Agiriano bitxigilea.
- 8 **Nire leihotik** Jon Olaizola, *Ilunabar pentsakorrak.*
- 10 **Iritziak** Luis Gurrutxaga, *Udan... Tourra; Txetxu Urbieta, Xelebrío.*
- 12 **Elkarrizketa** Ainitze Odrizola ikerlaria.
- 18 **Erreportajea** Landeta.
- 25 **Lehiaketa**
- 26 **Erretratua** Felix Iturria zerbitzaria.

- 30 **Plazan bazan**
- 33 **Iritzia** Imanol Amiano, *Prost! ...eta hondoraino!*
- 34 **Bestaldetik** Jexux Zelaia korrikalaria.
- 38 **Iritzia** Ione Gurrutxaga, *Gure hitzak.*
- 40 **Iritzi grafikoa** Itziar Aranguren.
- 42 **Klik!** Trafikoaren puntu ilunak.
- 46 **Iritziak** Miel A. Elustondo, *Arkupeak; Aintzane Garmendia, Hormaren beste aldean.*

UZTARRIA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna
Ibaxo Iraeta
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Jon Olaizola

Luis Gurrutxaga

Txetxu Urbieta
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Aintzane Garmendia

Alex Berasategi

Elena Margüello
Inprimategia
Antiza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



azpeitiko udala
denon artean

uztarrria

UZTARRIA KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardencia
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 94 47 AZKOITIA
Urtiarle 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 5808
Faxa.: 943 15 03 62




Aiortza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com



EuroZaler CITROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrokoak

Urko: 618 96 49 95 / Jan: 649 12 02 71
ikargi@lanak@gmail.com www.ikasitemak.com
20730 AZPEITIA

Iuba
ahelkularitza

Analakuntza
libela
lehenala
konkistala

Gestioi lanak
Finan administratza
Gestio inobiliarria

Tlfno: 943 157 329 Faxa: 943 157 379
Zaparrak saltea: 49 41 Iuba@ahelkularitza.com

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51



ADI
ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00

● **Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

● **Talia** 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
arwed@adi.es@gmail.com
Matricula urte osan zabala

IRENE ALTUNA
SOLAGONDA

Loiola-Bidea, 26 Tel. 943-81 51 87
www.irenealtuna.com

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

Ondo pasatu!



MAILLO OIARZABAL

Oi Bethleem, etorri da zure garaia. Oi Bethleem!". Urriko arratsalde epelean etxeko leihora irten, eta Pantxoa eta Peioren *Oles ta oles* diskoko abestiak entzuten ditut aurreko tabernan. Ordurako hasita daude Gabonetako argiak jartzen Azpeitiko kaleetan; Urrestillan oraindik ez, baina badira aste batzuk argi horiek jarri ahal izateko kableak-eta prest utzi zituztela. Urrian. Eroskiko pasilloak mehartzen hasita zeuden lehendik, turroiz, txokolategi eta gozo festaz beteta. Gabonak urtetik urtera goizago 'hasten' direla esan ohi da, baina aurtengoa marka guztiak hausten ez ote den ari... Seinale gehiegitxo, azaroko aldizkarian Gabonez idazteko tentazioari eusteko. Rikardo Arregik ere *Gabonak* izenburuarekin zutabea argitaratu duela ikusi dut. Urriaren 27an. Goizegi nenbiletakoan, ni.

Gabonzale porrokatua izandakoa naiz, Gabonetako ohiturekin –batzuekin, bederen– oso-oso ondo pasatzen zuen horietakoa. Gabon eskea zen nire kutunetakoa. Ugarteko Joxe Antonioren kamioira igo, eta goizean Landetaraino eta arratsaldean Nuarberaino joaten ginen, baserriz baserri eta etxez etxe oinez eta

kantuan Urrestillarako bidea egiteko. Barka bezate Atxubiagakoek: gure garaian behintzat han hasten genuen Gabon eskea, gure esnatu berritako ahots hil eta desafinatuekin esnatzen genituen hangoak, ez ziguten inoiz harrika egin eta, gainera, dirua ematen ziguten! Auntxarekin eta Iturbiderekin joaten ginelako libratzen ginela uste dut. Dena esaten hasita, arratsaldean beste indar bat hartzen zuten gure kantuek, eta Atsaranen, Ugarten, Makibarren edota Txarabarrenen eskaintzen ziguten jan-edanak izaten zuen zerikusia horrekin. Gabon gaueko afaria hasterako, ondo beteta egoten ginela, alegia.

Eguberri eta Errege egunetako meza-kontzertuekin ere izugarri gozaten nuen. Vienen Strausstarren valsak eta *Radetzky Martxa* dituzte, eta Urrestillan Busca Sagastizabalen *Misa Pastorela*; latinez, eta dantzarako gogoa ematen duena. Aurpegi arraroa jarri duzue aurrekoa irakurrita, baina ez naiz gehiago luzatuko.

**"GLOOORIIA IN EEXCEELSIIS DEEEO".
PROBATU EZ DUENAK,
EZ DAKI ZER DEN
HORI**

"Gloooriia in Eexceelsiis Deeeo". Probatu ez duenak, ez daki zer den hori.

Etxean ikasi nuen Gabonetako ohitura horiek maitatzen, eta maitasun hori transmititu zidatenetako batzuk falta ditudanetik, ditugunetik, eramateko zailak bihurtu zaizkit Gabonak. Badakit ez naizela bakarra, noski. Orain arte aipatutakoez gain, gurean ere familia ospakizunak dira Gabonak, eta hutsuneak normalean baino sakonago antzemateko egun aproposak dira, inola ere.

Kale-tabernetako giroa da Gabonen beste ezaugarri bat. Urtean behin bakarrik ikusten duzun jendea agurtzeko momentuak izaten dira sarri Gabonetako poteoak. Eta zorientasuna opatzeko. Eta besteen ospakizunen berri izateko. "Ondo pasatu! Non zarete?". Desio bat eta galdera bat. Gurean hori da ohitura, eta txantxetan aritzeko aitzakia ere bai. Baina enegarren "ondo pasatu! Non zarete?" entzuten duzunean, batzuetan, betekada sentitzen duzu. Badakizulako ezetz, ez ba, gau horretan ez duzula bereziki ondo pasatuko, nahiago duzula pasatuta balego.

Pasatu dezagun ondo ahal dugun guztietan, noski, baina ez gaizki sentitu lortzen ez denean. Ez da derrigorra, ezta Gabonetan ere. ■■■

Ane Agiriano: "Argi ona eta pazientzia behar dira bitxiak egiteko"

TESTUA IHINTZA ELUSTONDO

ARGAZKIA ANE AGIRIANO

Enpresa ikasketak egin zituen Ane Agirianok (Azpeitia, 1996), eta egun, enpresa bateko finantza arloan lan egiten du. Dena den, badu beste zaletasun bat: bitxiak egiten ditu denbora librean. Erindi izena du haren proiektuak.

Nolatan hasi zinen bitxigintzaren munduan murgiltzen?

Txikitan asko egiten nituen, baina unibertsitatean hastean, albo batera utzi nuen afizioa. Dena den, konfinamendu garaian, ganbaran gordeta nituen gauzak ateratzen hasi nintzen: berriro hasi nintzen bitxiak egiten, margotzen... Hasieran, niretzako eta etxekoentzako sortzen nituen bitxiak, baina gero, lagunek, bikotekideak nahiz familiakoek Instagramen kontu bat zabaltzera animatu ninduten, jendeak zer egiten nuen jakin zezan. Pausoa ematea erabaki nuen.

Konfinamenduak gauza onak ere ekarri ditu, beraz.

Bai [barreak]. Nire sormena ateratzeko balio izan du, behintzat.

Zer-nolako bitxiak egiten dituzu?

Belarritakoak eta lepokoak egiten ditut, baina belarritakoetan zentratzen naiz gehienbat. Gainera, maskarak erabiltzen hasi ginenean, horientzako lokarriak egiten ere hasi nintzen. Ideia bat izaten dudanean, paperean marrazkia egin, behar dudan materiala eskatu eta sortze prozesuari ekiten diot.

Zer material erabiltzen duzu?

Batez ere, letoia. Niri ez zait gustatzen asko pisatzen duten belarritakoak erabiltzea, eta horregatik, material egokia iruditzen zait letoia, pisu handirik ez duelako. Horrez gain, gustatzen zait harri bitxiak bilatzea, zerbait berezia sortzeko.

Non saldu ohi dituzu bitxiak?

Instagrameko kontua tarteko, astero egin ohi ditut bidalketa batzuk. Horrez gain, herriko mertzeria batean saltzen ditut, eta azoka batean ere parte hartu nuen aurreko batean. Oso esperientzia polita izan zen azokakoa, eta agian, animatuko naiz gehiagotan parte hartzera.

Etxean bertan sortzen dituzu bitxiak, ezta?

Bai, horretarako txoko bat prestatuta dut, mahai batekin; askoz gehiago ez dut behar. Hantxe egoten naiz deskonektatzea behar dudanean.

Erlaxatzen lagutzen al dizu bitxigintzak?

Asko deskonektatzen dut bitxiak egiterakoan; gustura eta erlaxatuta aritzen naiz. Bitxiak egiteaz aparte, argazkilaritza ere asko gustatzen zait, eta xehetasunak asko zaintzen ditut Instagramerako argazkiak ateratzerakoan. Zerbait saltzen dudanean, paketea prestatu behar izaten dut, eta hori ere mimo handiz egiten saiatzen naiz.

Kontuz kontuz egin beharreko lana izango da, ezta?

Bai, argi ona eta pazientzia behar dira bitxiak sortzeko.

Erindi da zure proiektuaren izena. Nondik dator izen hori?

Duela urte batzuk, bidaia bat egin nuen Afrikara, Namibiara, eta izugarri gustatu zitzaidan Erindi izeneko parke nazionala. Bidaia haren oso oroitzapen politikak dauzkat, eta horregatik aukeratu nuen izen hori.

Denbora asko eskaintzen al diozu proiektuari?

Niretzako zaletasuna da bitxigintzarena, eta denbora librean aprobetxatzen dut bitxiak sortzeko: arratsaldeak, asteburuak... Amari eta ahizpari ere asko gustatzen zaie nire afizioa, eta asko laguntzen didate. Gainera, askotan, nire ondoan egoten da Maia txakurra, eta hura ere proiektuaren parte dela sentitzen dut.

Nola ikasi duzu? Autodidakta al zara?

Autodidakta naiz, bai. Egin nuen ikastaro bat oinarrizko jakintza batzuk izateko, baina bestela, neure kabuz joan naiz ikasten, Interneten ideiak hartzen, bideoak ikusten... Dena den, badut buruan beste ikastaroren bat egitea; gustatuko litzaidake, adibidez, zilargintza ikastea.

Aurrera begira, zer nahiko zenuke?

Egia esan, ez dut asko pentsatu. Baina ideia berri asko dauzkat buruan. Bitxigintzak zaletasun izatetik lanbide izatera pasatu behar badu, gertatuko da. Baina hori ezin dut jakin; denborak esango du. ■■■



Ilunabar pentsakorrak



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Hasiera guztiek dutela amaiera. Hori esan ohi da maiz, gehienetan modu negatiboan eta ezkorrean. Baina ilunabarrak dira amaierak politak izan daitezkeenaren frogarik onenak.

Izan ere, amaierak zerbait berriaren hasiera dakar funtsean. Aurreikusi ezin den hasiera bat, aukera berri bat. Horrek ematen digu beldurra maiz, denbora luzez egonkortasun batean egon eta gero, kontrol eta erosotasun sentipenetik at geratzeak, begien itxi-ireki batean.

Ziurtzat jotzen duzuna galdutakoan, ohartzen zara ez dela ezer zurea, ez dela ezer betiko. Orduan da ordua bizitzak jartzen dizun erronka berria hartu eta ausardiaz aldaketa besarkatzeko. ■■■







Udan... Tourra

Txiki-txikitatik izan dut "amodiozko harremana" txirrindularitza proba honekin. Gogoratzen dut, ume nintzela, uztaileko egun eguzkitsuetan, xesteroak etxe atarian otargintzan aritzen ziren bitartean, nola egon ohi ziren irratia adi-adi entzunez, batik bat mendiko etapetan. Apustuak eta eztabaidak ohikoak ziren. Nik arrebarekin izaten nuen xextra partikularra. Hura Anquetil zalea eta ni Bahamontestarra. Eta jakina... ni galtzaile! Frantziarra bost aldiz izan zen garaile, eta toledarra behin. Nerabe nintzela, helduagoekin Getariara joan ohi nintzen, Frantziako telebistan ikus zitekeelako eta kostaldera bakarrik iristen zelako seinalea. Eta Santio Egunean, Ordiziako proba ikusteko irrikaz egoten ginen, Tourreko hainbat partaide entzutetsu joaten baitziren hara.

Hurrengo urratsa bertara joatea izan zen, Pirinioetara. Jada soldaduska eginda, ahaztezina izan zen "heroi" haiek lehen aldiz Tourmalet igotzen ikustea. Harrezkero, lau hamarkadatan pasatu dira zenbait lagun ohiko bisitari bilakatu ginenetik. Eta noski, gertatutako pasadizoak eta istoriotxoak, dozenaka.

Tourmalet igotzen txirrindulariak, eta zertxobait aurreratuta, auto andana, zuzendariekin, teknikariekin eta gonbidatu ospetsuekin. Auto batean, Anquetil! Gure aurrean

ibilgailua kieto gelditu zen, itota. Aurrera ezinean, txirrindulariak gain-gainean, txapeldun handia jaitsi eta urduri guri erreguka: "*S'il vous plaît... poussez, poussez. Vite!*". Eta lortu genuen autoa martxan jartzea. "*Merçi, merçi...*", esanez agurtu gintuen. Ni Anquetilen ondoan autoari bultzaka; sublimea instant hura! Lehen aldiz Luz Ardiden igo nueneko esperientzia krudela izan zen. Etapa ailegatu baino ordu batzuk lehenago, izerdi patsetan, ordurako jendea gainezka zela bide ertzean. Eta nire itxurarekin errukituta edo – txirrindulariarena baino gehiago aizkolari lodikotearena –, zaleak aupaka animoak ematen. Lainezaz puztuta, indarrak neurtzeke, bitsa ezpain ertzetan nuela, guztiz akituta iritsi nintzen mendate gailurrera. Nolako bisajea zuten lagunek ikusi

TXIKI-TXIKITATIK IZAN DUT "AMODIOZKO HARREMANA" TXIRRINDULARITZA PROBA HONEKIN

HAUXE BAI JENEROAI!



HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Xelebri

Ez daukazu esan beharrik, nik neuk onartzen dut. Xelebrea naiz, eta gero eta xelebreago bihurtzen ari naiz. Naizena naiz, nintzenaren eboluzio logikoa, eta neure burua den bezalakoa onartu besterik ez daukat. Xelebretasuna da nire markaren ezaugarrietako bat. Eta orain, harri eta zur utziko zaitut. Ni ere armariotik ateratzera noa. Egia da. Bai. Gaur egungo futbolak aspertu egiten nau.

Dena Real den garai honetan, Real izurri bihurtu den sasoian, Reale Arena delakoak ez nau erakartzen. Egia esan, telebistan partida oso bat ikustea kostatu egiten zait, eta inoiz izan ez dudana Realaren kamiseta erosteko premiarik ere ez dut sentitzen. Futbolaren harra barru-barruraino sartuta daukat, sumendia piztuko da, pasioaren labak gainezka egingo du, bai, baina, orain, frankizien futbolak aspertu egiten nau.

Kontrax, xelebrea, beti besteen norabidearen aurka... Arrazoia duzu, nahi duzuna pentsatu, baina horrelakoa naiz, eta hemendik aurrera, egiten dudana egin, egingo dudana apurra, okerrera egingo dut, ziur nago. Bien bitartean, futboletik biziko naiz, haurrak Betharrametan, neska eta mutil, futbolaren izerdiaz gozatuz ikusten zoriontsu. ■■■

nindutenean... Amorratio galantak jasan ere bai: azkena urte honetako Tourrean. Tourmalet gainetik igaro behar genuen etxera heltzeko, eta mendatearen barrenean, gendarmeen kontrolean beste aldera pasatzeko baimena jasota, gailurrean beste kontrola, eta ezetz, ez ginela handik joango. Lasterketa handik 24 ordura zetorren, eta ezin igaro handik? Urrian zain-zain egoten gara hurrengo urteko Tourraren aurkezpena ikusteko eta berehala planak egiteko. Eta hiruzpalau hilabete lehenago, Joxe Estrak, gure taldeko nagusiak, galdetuko dit: "Hi, Luix, Lidiari -etxea alokatzen diogun jabe frantziarra- deitu al diok? Aurten lau egun ez, astebete, e!".

Bada, ordea, azpimarratu nahi nukeen kontu bat: euskaldunen

presentzia lasterketa horretan; zehazki, Pirinioetatik igarotzerakoan. Noski, urte hauetan guztietan desberdina izan da zaleen kopurua. Indurainen garaian, eta zer esanik ez Euskaltelen urteetan, euskaldunek mendateetan osatzen genuen marea itzela ohi zen. Belaunaldi eta kolore guztietako euskaldunetz osatutako marea. Bide ertzetan hainbat ikurrin ikusteak gainezka egiteko zirrara sortzen digu. Kontuan hartuta telebistari esker bost kontinenteetan milioika pertsonak ikusten dutela kirol froga, agian baliagarria da munduari jakinarazteko badela Pirinio mendebal ertzean herri bat, Euskal Herria (Basque Country) izenekoa. Eta hori bada zerbait.

Esandakoa, udan, zehazki uztailean... Tourra. ■■■



"Gero eta normalagoa da lagundutako ugalketa baliatzea"

AINITZE ODRIOZOLA IKERLARIA

Biomedikuntzan graduatua eta Zitogenetika eta Ugalketaren Biologian aditua, espermatozoideetan akats kromosomikoak dituzten gizonentzat baliabide terapeutikoa sortzeko doktoretza tesia egiten ari da. Luze hitz egin du areagotzen ari den antzutasunaz nahiz horri aurre egiteko teknikez.

Testua: **Elena Margüello**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Ainitze Odriozola (Azpeitia, 1996) Biomedikuntzan graduatua da, eta Zitogenetika eta Ugalketaren Biologia masterra egin ondoren, doktorego ikerketa egiten ari da; espermatozoideetan akats kromosomikoak dituzten

gizonezkoentzako lehen baliabide terapeutikoa sortzea du helburu lan horrekin. Odriozola eta ikerketako taldekideak gailu hori sortzeko bidean ari dira buru-belarri.

Zer ikasketa egin dituzu?

Biomedikuntza ikasi nuen; Euskal Herrian ez zegoen gradu horretako eskaintzarik, eta Lleidara (Katalunia) joan nintzen ikastera. Betidanik gustatu izan zait osasungintza, eta praktikaldietan konturatu nintzen laborategiko lana gustuko nuela. Geroago, giza ugalketa eta lagundutako ugalketa interesatzen hasi zitzaizkidan, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan

Zitogenetika eta Ugalketaren Biologia masterra egitea erabaki nuen. Bartzelonan praktikak egin ondoren, gai horren inguruko tesia egiteko aukera sortu zitzaidan, eta orain, doktoretza tesia egiten ari naiz Bilbon.

EHUn ari zara egiten doktoretza tesia. Zertan datza zure ikerketak?

Gurea giza ugalketa taldea da. Bilboko Medikuntza fakultateko Fisiologiako departamentuan egiten dugu lan, eta bertan giza ugalketa, batez ere gizonena, hobeto ulertzen saiatzen gara. Lagundutako ugalketan tresna gehienak emakumeentzako eta emakumeak aztertze daude eginda. Dena den, gizonezkoen arloa ere garrantzitsua da; izan ere, %50 da gizonezkoen faktorea. Gu, beraz, gizonezkoen alde hori aztertzen saiatzen gara. Zehazki, Gurutzetako eta Galdakaoko ospitaleetako semen laginekin egiten dugu lan, eta horiekin ugalketako gaiak hobeto ulertzen saiatzen gara molekulei





Ainitze Odriozola, laborategian.

dagokienez nahiz fisiologikoki. Momentu honetan, doktoratu aurreko bi ikertzailek, doktoratutako beste hiruk eta zuzendariak osatzen dugu taldea.

Espermatozoideetan akats kromosomikoak dituzten gizonezkoentzako lehen baliabide terapeutikoa sortu nahi duzue. Zer litzateke baliabide terapeutiko hori? Nola funtzionatuko luke?

Antzutasuna honela definitzen da: bikote batek hamabi hilabetez sexu harremanak izan eta umerik ezin edukitzea. Halako kasuetan, jende askok lagundutako ugalketara jotzen du. Lagundutako ugalketaren bidez lehenengoan umea izango dugula pentsatzea ohikoa den arren, lehen saiakeran umea izateko aukera %30ekoa da, gutxi gorabehera. Ohiko diagnostikotik ihes egiten duten akats espermatozoiden lotu daiteke ehuneko baxu hori. Espermatozoideetan akats

kromosomikoak dituzten gizonezkoen kasuan, lagundutako ugalketa tekniken arrakasta tasak asko murrizten direla ikusi dugu. Baina zer dira akats kromosomikoak? Espermatozoide bakoitzak 23 kromosoma eduki behar ditu obuluarekin batutakoan 46 kromosoma izateko eta informazio genetiko guztia haurrari pasatu ahal izateko. Akats kromosomikoak daudenean, informazioa ez da guztiz egokia, eta batzuetan ez da bizitzarekin bateragarria; abortuak sortu ohi dira halakoetan. Beste batzuetan, bizitzarekin bateragarria izan daiteke informazioa, baina Down edo Klinefelter bezalako sindromeak sortzen dira.

Gure lana da espermatozoide lagin desberdinak aztertzea, horien azalean dauden proteinak ikertzea eta osasuntsuak direnen eta akatsak dituztenen artean desberdintasunik ba al dagoen ikustea. Desberdintasun horietan oinarrituta,



Ainitze Odriozola.

**"AKATSDUN ESPERMATOZOIDEAK
LAGINETIK KENTZEKO GAILUA
DISEINATZEA DUGU HELBURU"**

**"ORAIN ARTE ANTZUTASUNAREN
ARAZOA EMAKUMEEN ALDETIK
BAKARRIK JORRATU DA"**

**"ASKOTAN OBSESIO PUNTU BATERA
IRITS GAITEZKE UME BAT EDUKI
NAHI ETA EZINAGATIK**

soilik osasuntsuak diren espermatozoideak hautatzeko metodo bat sortzea da gure helburua.

Nola atzematen dituzue kromosometan alterazioak dituzten espermatozoideak?

Gaur egun, akats kromosomikoak aztertze bide bakarra FISH izeneko teknika da. Hori erabiliz gero, ordea, lagina suntsitu egin behar da, eta beraz, ezin da gehiago erabili. Gure intentzioa, ordea, lagin bateko akatsak kendu eta hori erabiltzeko aukera eskainiko digun gailu bat sortzea da.

Behin hori eginda, zein da hurrengo urratsa?

Akatsak dituzten laginak atzeman ondoren, osasuntsuekin alderatzen ditugu. Horretarako, besteak beste, proteomika teknikak erabiltzen ditugu, bi taldeen artean dauden desberdintasunak bilatzeko.

Zer-nolako emaitzak ari zarete izaten?

Nahiko emaitza onak ari gara izaten momentuz. Orain, akatsak dituzten espermatozoideak laginetik kenduko dituen gailu medikoa diseinatzea dugu helburu.

Ikerketari dagokionez, zein dira epe laburreko helburuak?

Gailu mediko horren diseinuarekin ari gara lanean buru-belarri, beste enpresa bioteknologiko batzuekin elkarlanean. Sistema mikrofluidiko bat sortzen ari gara espermatozoide onenak aukeratzeko. Gailu mediko hori diseinatzea eta bitartean espermatozoideen fisiologiari buruz gehiago jakin ahal izatea dira helburuak.

Eta epe luzekoak?

Gailu hori kliniketan ezarri ahal izatea nahiko genuke; hau da, tresna erraz, azkar eta eraginkor bat sortzea lagundutako ugalketa zentroetan espermatozoide onenen hautaketan laguntzeko eta arrakasta tasak hobetzeko.

Emakumeetan ere izango dira antzutasun kasuak.

Horren inguruko ikerketak egin al dira historian zehar?

Askoz gehiago izan dira emakumeen antzutasunari buruz egin diren ikerketak; orain arte antzutasunaren arazoa emakumeen aldetik bakarrik jorratu da. Lehen pentsatzen zen lan guztia obuluak egiten zuela eta espermatozoideak ehuneko txiki batean bakarrik eragiten zuela. Orain, berriz, espermatozoideek pentsatzen genuena baino eragin handiagoa dutela ikusten ari gara, eta antzutasun kasuen ia %50 gizonaren faktoreak eragiten dituela. Guk ez dugu ikerketarik egin emakumeen antzutasunaren inguruan, orain arte asko egin izan direlako.

Antzutasuna aztertzerakoan, gehienetan, proba asko egiten zaizkio emakumeari. Nire ustez, paraleloki egin beharko lirateke gizonenak eta emakumeenak; izan ere, hala egin ezean, karga handiagoa jasaten du bikoteko kide batek, eta bikotearena da arazoa, ez batarena edo bestearena. Hori bai, gizonaekoaren proba egitea askoz ere errazagoa da, lagin bat hartu eta hori aztertzea nahikoa baita, proba inbaditzailearik egin gabe. Antzutasuna gizonaekoarena dela jakin badezakegu, emakumeari proba inbaditzailearik egin beharrik ez dago.

Munduko Osasun Erakundearen arabera, azken hamar urteetan antzutasun kasuak izugarri areagotu dira. Zer dela-eta gertatu da hori?

Faktore asko daude hori azaltzeko. Gero eta beranduago izaten ditugu haurrak, eta hori oso garrantzitsua da. Izan ere, emakumeok obulu jakin batzuekin jaiotzen gara, eta pixkanaka-pixkanaka, hilerokoarekin, obulu horiek bota egiten ditugu; era berean, gelditzen diren obuluak zahartzen joaten dira. Ikusi da 35 urtetik aurrera arazoak izateko aukerak asko ugaritzen direla; adin horretatik aurrera, asko jaisten da haurdunaldi tasa. Estresak, bizi erritmoak eta abarrek ere asko eragiten dute antzutasunean, baita elikadurak eta kirolak ere. Beti laguntzen du bizimodu osasuntsua izateak.

Nola zaindu behar litzateke antzutasun aukerak murrizteko?

Atsedinari garrantzia emanda, elikadura osasuntsua izanda, eta ahal den neurrian, estres maila jaitsita. Dena den, egia da ingurumenean gero eta kutsadura handiagoa dagoela eta jatekoie gero eta substantzia kimiko gehiago botatzen dizkietela; horrek ez du laguntzen. Bestalde, gure sexu harremanek ahalik eta osasuntsuenak izan behar dute. Askotan, obsesio puntu batera iritsi gaitzke ume bat eduki nahi eta ezinagatik, eta horrek berak estresa sortu eta hardun gelditzea zailtzen du askotan.

Datuen arabera, beraz, geroz eta zailagoa da haurdun geratzea, eta gainera, geroz eta zailagoa da baliabide terapeutikoak ordaintzea ere.

Gaur egun, lagundutako ugalketa badago Gizarte Segurantzian, baina sekulako itxarote zerrendak daude; kasu batzuetan, bi urte ere pasa daitezke norbere txanda iritsi arte. Bide pribatua hartzeak, berriz, esfortzu handia eskatzen du ekonomikoki. Horregatik, lagundutako ugalketaren tratamenduak hobetzeko bidean, garrantzitsuak dira gurea bezalako ikerketak; izan ere, arrakasta

tasak igotzen badira, denbora gutxiagoan egin ahalko da prozesu osoa, eta beraz, merkeagoa izango da guztia. Era berean, psikologikoki ere gauzak errazagoak lirateke bikotearentzat.

Oso garrantzitsua da alor honetan ikertzen jarraitzea. Oraindik giza ugalketaren inguruko galdera asko daude erantzuteko, baina ez da asko ikertzen hobekuntzak egiteko; izan ere, negozioa eginda dago jada. Dena den, haur bat etxean izan arteko denbora murrizteak kostu ekonomikoak eta kostu psikologikoak murrizten ditu.

Bestelako zer prozesu daude haurdun geratu ahal izateko?

Lagundutako ugalketa tekniken alorrean, intseminazio artifiziala eta *in vitro* ernalketa daude. Intseminazio artifiziala teknika sinpleagoa da, ez da oso inbaditzailea, eta ebakuntza gelatik igaro gabe egin daiteke. Teknika horren bidez, emakumearen obulazioa estimulatu da, eta gizonaekoaren semen lagina aztertzen da, obulazioa egiten den unean umetokian espermatozoide mugikor nahikoa jarrita. *In vitro* ernalketa, aldiz, teknika inbaditzaileagoa da, baina haren arrakasta tasak hobeak dira. Kasu horretan, lehenik emakumearen obulazioa estimulatu da, ondoren obuluak erauzten dira, eta gero, laborategiko ernalketa egiten da. Ernalketa egiterakoan bi aukera daude: obuluak espermatozoideekin harremanetan jarri edo zuzenean espermatozoide bat obulu barruan sartu (ICSI). Azkenik, enbrioien transferentzia egiten da.

Zenbat ordaindu behar du bikote edo familia batek klinika pribatu baten bidez lagundutako ugalketa baliatu nahi badu?

Ziklo bat deitzen zaio prestaketatik eta *in vitro* ernalketara arteko prozesuari. *In vitro* ernalketa egiteko, hainbat fase igaro behar dira. Lehenik, gizonaekoa eta emakumezkoa aztertzen dira, eta emakumeak hormonak hartzen ditu obulu kopurua handitu ahal izateko. Gero, obulu horiek atera egiten zaizkio, laginak hartzen dira, ernaldut egiten dira eta ondo daudenak berriro sartzen dira. Ziklo hori egin eta lehenengoan haurdun geratzen direnak %30 izaten dira, gutxi gorabehera. Ziklo hori ez bada aurrera joaten, beste ziklo bat hasi behar da zerotik. Ziklo bat, gutxi gorabehera, 3.000 euro kostatu ohi da. Beste batzuetan, 'haurdunaldi ziurra' deituriko paketeak ere saltzen dira.

Nola eragiten du psikologikoki prozesu horrek guztiak?



Oso prozesu zaila izan ohi da psikologikoki. Denboran asko luzatzen den kontua izan ohi da, eta bikote askok motibazioa galtzen dute. Ziklo batekin haurdun geratzea lortzen bada, dirua gastatuta ere, sentipen onak izan ohi ditu bikoteak. Dena den, normalean, bi edo hiru urte irauten du prozesu guztiak, eta presio asko sortzen ditu horrek bikote harremanean: sexu harremanak kalitatezkoak izatetik urrun gelditzen dira, eta bikote harremaneko helburua haurra izatea bihurtzen denean, arazoa sortzen da. Dena den, errealitate horretaz jabetuta, geroz eta klinika gehiagotan eskaintzen dute laguntza psikologikoa

tratamenduaren barruan; geroz eta gehiago lantzen da alor hori.

Lagundutako ugalketa oraindik tabu bat da gizartean, eta jendeari kostatu egiten zaio horretaz hitz egitea. Jendeari asko kostatzen zaio gai honetaz hitz egitea. Zaila egiten da oraindik umerik ezin dutela eduki edota emaleetara jo behar dutela aitortzea. Gutxi hitz egiten da, baina gure artean geroz eta normalagoa da lagundutako ugalketa baliatzea. Beraz, tabuak alde batera utzi eta normaltasunez hitz egiteari ekin behar diogu. Gainera, tabu izateari uzteak psikologikoki prozesua erraztea ere ekarriko lukeela uste dut. ■■■



Landetako bidegurutzeak

Herriko industria eremurik zaharrena, nahaspilaren adibide garbia da Landeta. Auzoa ordenatzeko eta txukuntzeko beharraz jakitun da udala, baita herritarrak ere. Etorkizuneko esku hartzeak zeintzuk izan behar diren jakiteko, azterlana egin du herri erakundeak. Auzoarekin lotura duten herritarrek eskaera zehatzak egin dizkiote udalari, "egunerokoan badelako zer hobetua".

Testua: **Julene Frantzesena eta Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Alex Berasategi eta Mailo Oiarzabal**.

Landeta da Azpeitiko industria eremurik zaharrena, eta horren erakusle da gaur egun han aurki daitekeen anabasa: etxebizitzak, hutsik dauden industria pabilioiak, jatetxeak, saltokiak... elkarren segidan eta ondoan, antolaketa jakinik gabe. Garai batean, Landetan zeuden herriko industria jarduera edo enpresa nagusiak; altzarigintzan aritzen ziren horietako asko. Gaur egun, baina, ehunka metro koadro daude abandonatuta, eta eremua degradatuta dago. Horrek ez du esan nahi, ordea, mugimendurik ez dagoenik, auzoa hilda dagoenik. Izan ere, dozenaka dira auzo horretan bizi diren herritarrek, baita martxan diren industria jarduerak eta bestelakoak ere.

Auzoaren egoeraz jabetuta, Azpeitiko Udalak azterlan bat abiatu zuen iazko urtearen hondarrean. Hain zuzen ere, herrian "egoera okerreanean" dagoen eremua dela iritzita eta ingurua "ordenatu" beharra zegoela eta, hamasei hektareako azalera duen Landetako eremu jakin bat nola egokitu daitekeen ikusteko azterlana egin dute industria lurretan adituak diren hainbat teknikaririk. Zehazki, Atxubiagako biribilgunetik Amuko zubiaren ondoko biribilgunera arteko eremua da aztertu dutena, etorkizunean auzoa ordenatzeko proposamen bat garatu ahal izateko. Josu Labaka Azpeitiko Udaleko Hirigintza batzordeburuarekin hitz egin du Uztarriak Landetaren egoeraz nahiz aurrera begira auzo horri dagokionez udalak duen ikuspuntuaz.

Landetaren etorkizuna da jomuga, eta auzoarekin zer egin erabakitzerako, ikuspuntu orokor bat eduki nahi izan du udalak. Hala azaldu du Labakak: "Lehen lana eginda dago, eta anbizio handikoa da. Dena den, gauza erreal bat egin behar da. Auzoko eremu jakin bat aztertu dugu". Haren arabera, Landeta herri bateko alde zaharraren pareko gunea da. "Gaur egun inork ez zukeen bere garaian alde zaharretan eraiki zen moduan eraikiko; gaur egun ez da etxe batetik bestera hiru metroko tartea utzita eraikitzen. Landetarekin ere antzeko zerbait pasatu da; izan ere, Landetako industria eremuak bere garaiko industria beharrei erantzungo zien".

Udalak, izatez, badu eremuak hirigintza aldetik antolatzeke eskumen zuzena, baina Landetako kasua "berezia" dela aitortu du. "Landetan konbinazio kaotikoa dago, dena nahaspilan dago. Ordenatu egin beharko da denborarekin; kaleak zabaldu eta egokitu, hirigintza aldetik antolatu, oinezkoentzat bideak egin, aparkalekuak ordenatu...". Gaur egungo Azpeitiko Hirigintza Plan Orokorren arabera, Landetako ia eraikin guztiak "kontsolidatuta" daude, ordea. "Horrenbestez, gaur egungo planak ez du ematen antolatzeke eta beharrei erantzuteko aukerarik".

Berriki egin duten azterlana etorkizunerako ikuspegia izateko eta hirigintzak eskaintzen dituen tresnen arabera erabakiak hartzeko gauzatu dutela azaldu du. "Helburua da udalak dituen hirigintza eskumenen bidez, etorkizunera begirako esku hartzeak norabide zehatz batean egitea; hau da, norbaitek pabilioia bota eta berritu behar badu, baldintza jakin batzuk bete beharko ditu, eta haren ondoko enpresakoak ere bai". Bide hori jorratuz gero, auzoari "zentzua" emango diotela uste du Labakak. "Zerbait galduta ere, denek asko dute irabazteko, auzoa erakargarri eta erabilgarri egiteko". Hala eta guztiz, hark dioenez, ezinezkoa da Landeta egun batetik bestera eraberritzea, jabetzak herritar artean banatuta daudelako eta gaur egungo Hirigintza Planak ematen dituen eskubideak ematen diudelako. "Zentzu horretan, jabe bakoitza momentuko erabilerari momentuko aterabidea ematen ari da, instalazio askok eta askok ja ez baitute balio industriarako".

Industrialde berri bat

2019. eta 2020. urteen artean, herriko industria lurren inguruko azterketa egin zuen udalak, Urola Industrialdearekin batera, herriko enpresen beharrak zeintzuk ziren ezagutzeko. Jasotako datuei erreparatuz gero, Azpeitian industria jarduera gauzatzen duten 221 enpresa zeuden iaz. Horiek milaka metro koadro hartzen



dituzte herriko industria eremuetan, hala nola Basarten, Anardin, Antzibarrenan nahiz Landetan. Horietako asko eta asko egur lanean aritzen dira, baina industria piezen mekanizatuak eta makina-erremintak ere indar handia daukate.

Azterketa haren barruan elkarrizketatutako 186 enpresetatik 39k pabilioiz aldatzeko eta orduan zituzten instalakuntzak handitzeko beharra aurreikusten zuten epe labur-ertainean. Baina herrian geratzekotan, industria lurrei dagokienez, zer aukera dituzte enpresa horiek? Argi du Labakak: "Argi dago gure ekonomiaren motorra industria dela, eta herritarrek Azpeitian lan egitea eta horiek hemen bizitzea nahi badugu, instalazio eta azpiegitura egokiak behar dira; enpresek erakutsi duten eskaerari erantzun behar diogu".

Industria lurren betetze maila %90ekoa da Azpeitian; hau da, herrian industriarako egokitutako azpiegituren edo pabilioien nahiz lokalen %90 beteta daude. Dena den, datu hori asko aldatzen da lupa Landetan jarriz gero: Landetako industrialdean azpiegituren %65 baino ez dira martxan gaur egun. Hainbat dira Landetako ehunekoak herri guztikoaren nabarmen azpitik egotearen arrazoiak, baina bi, behintzat, agerikoak dira Labakaren ustez: "Batetik, Landetako pabilioiak jabetza pribatukoak dira; eta bestetik, auzoak irisgarritasun arazoak ditu". Haren arabera, gaur egungo Landetak ez die erantzuten industria beharrei: "Hirigintza ikuspegitik beste antolaketa bat behar du auzoak".

Auzoak dituen gabezia horiez jakitun, eta aspaldiko asmo bati berriz eutsiz, Larringo eremuan industrialde berri bat eraikiko dute. Joan zen azaroan, hori ahalbidetuko duen hitzarmena sinatu zuten Azpeitiko Udalak eta Sprilur sozietate publikoak. Hain zuzen ere, Larrin baserriaren inguruko lurretan eraikiko dute industrialde berria, Oñatz auzoaren barrenean; Landetan ez, baina handik gertu. 210.210 metro koadroko azalera izango du eremuak, eta dena ondo bidean, urte gutxiren buruan eraikita behar luke industrialdeak.

Larringo lurak publikoak dira, eta Labakak dioenez, lur publikoak egokitzea ere garrantzitsua da. "Landeta bezalako industria eremu bat zaharkituta baldin badago, aukera desberdinak daude: hau da, zaharkitua berritu eta esku hartze publikoa egin. Bi jarduera horien artean talka egon daitekeela dirudi, baina elkar elika daitezkeela uste dut". Hark dioenez, blokeo egoera dago Landetan. "Gertatzen dena da Landetan eragiteko zailtasunak handiak direla, dena esku pribatuetan dagoelako. Bestalde, badago eskaera eta eskaintza orekatzeko beharra, baina Landetan ez dago eskaintzarik, eta beraz, esku pribatuetan diren zaharkitutako instalazio horiek



espekulatzeko bidea ematen dute". Udalak, gainera, egin du Landetako egoerari tenperatura hartzeko saiakera. "Pabilioi batzuk erosteko, botatzeko eta berritzeko saiakera egin dugu; hau da, industria lurra egokitzeko ariketa egin dugu, baina ezin izan dugu pausorik eman, ez dugulako akordioetara iristeko aukerarik izan, eskatzen dituzten prezioak ez direlako bideragarriak".

Landetaren eraberritzea gauza korapilatsua denik ezin daiteke uka, eta ziurrenik, urteak beharko dira haren antolamenduan eragiten hasteko. Bien bitartean udalak egin ditu auzoa txukuntzeko hirigintza lan batzuk, baina horiek "ematen duten puntura arte ematen" dutela aitortu du zinegotziak. "Egin dira lanak bidegorriaren lotura urbanizatzeke eta haren inguruan dauden jarduera ekonomikoen atariak irisgarritasun aldetik hobetzeko. Obra puntualak izan dira, ordea". Hala eta guztiz, Landetatik iristen zaizkien eskaerei erantzuten jarraituko dutela azaldu du, nahiz eta auzoan "elkarbitza arazo batzuk" sortu direla aitortu duen. "Kontua da interes eta erabilera talkak arazoak sortu dituela".

Landetako egoerari aterabide azkarra eta erraza ematerik ez dagoela argi du Hirigintzako batzordeburuak, baina denbora eskaintzen eta gaia lantzen jarraituko dutela esan du. "Esku hartzeak egin ditugu, baina auzoak sakoneko eta luzera begirako ikuspegia eskatzen du. Bitartean ahalegina egingo dugu, eta Landetan dauden herritarren ahotsak entzun eta haien beharrei erantzuten saiatuko gara". Hirigintza ikuspegitik azken urteetan egindakoak ahaztu gabe, badaki arazoak hor jarraitzen duela.

Zer diote bizilagunek?

"Utzita". Hitz hori, sentipen hori, behin eta berriz errepikatu dute erreportaje honetarako beren iritzia eta azalpenak eman dituzten herritarrek. Landetan bizi edota lan egiten duten herritarrek dira, bakoitzak bere kezka eta arazoak ditu, baina bat datoz auzoa herriko lehenetsuen zerrendan atzeko zuloan gelditzen dela adierazterakoan. Badakite gainbehera etorri den industrialde baten erdian edo tartean bizi direla. Gustatuko litzaieke sakoneko aldaketak ikustea, auzoa biziberritzeko plangintza bat martxan ikustea, baina badakite ez dela erraza izango. Hala ere, auzotarren eskaerek, sumatzen dituzten gabeziek, zerikusi gehiago dute egunerokotasunarekin.

"Zu nongoa zara?" galdetzen didatenei 'Landetako' erantzun, eta 'hori ez al da Azeptitia?' galdetzen dutenean, 'boladatan bai, boladatan ez' erantzuten diet".



Arantxa Larrañagaren hitzak dira (Azpeitia, 1971), eta auzokoen artean zabaldua dagoen sentipenaren adierazgarri dira hitzok. Bizi osoa darama Larrañagak Landetan; duela 55 urte ireki zuten haren gurasoek Bordatxo taberna, eta tabernan egiten du lan. Landeta Azpeitia da, ez dago erdigunetik hain aparte, baina distantzia fisikoa txikia izanagatik, zerbitzuen eta zaintzaren eremuan biderkatu egiten da distantzia hori. "Ni kale-kalean bizi naiz, baina hemen pasatzen dut eguna, eta sinestezina iruditzen zait oinez bi minutura dauden guneen artean zer-nolako itxura aldaketa ematen den. Herrian gaude, baina hau utzita dago", dio Goretti Iriartek (Azpeitia, 1982). Aita Jose Ignaciok (Urrestilla, 1952) eta ahizpa Leirek (Azpeitia, 1977) gidatzen duten Biek aroztegiaren egiten du lan Gorettik; 2003tik Arretxe kalean dute lantegia iriartetarrek. Lantegi horren ondoan, Arretxe kalean bertan, bizi da Alaitz Olaizola (Azpeitia, 1975). Landetan egin zituen umetako lehen urteak Olaizolak, familia erdigunera bizitzera joan zen arte; baina 20 urterekin itzuli zen Landetara, haurtzaroko bere etxera, eta han bizi da duela 26 urtetik. Olaizolaren iritziak, "industria eremu gisara ulertu den momentutik, ez zaio behar bezalako garrantzirik eman" Landetan bizi den jendearen bizi kalitateari, bertakoen beharrak ez dira kontuan hartu izan, "ez lehen eta ez orain". Iritzi berekoa da Kontxi Horrillo ere (Azpeitia, 1972). Akamendieneko etxeetan hazitakoa, urte batzuk auzotik kanpora bizi ondoren han bizi da orain ere. Landetako bizilagunek zerbait behar dutenean, auzoan zerbait konpondu beharrean ikusten dutenean, "beti atzetik" ibili behar izaten dutela nabarmendu du Horrillok, udalean eskean. Hots egiten duzunean, etortzen dira. Baina ingurua txukun antzera egongo dela bermatzeko, beti gu ibili behar al gara deika?", galdetu du. "Ahanztuak", horrela sentitzen dira maiz landetarrak, Larrañagak dioenez. "Biribilgunetik alde honetara, bestelakoak dira gauzak", dio Horrillok.

Landeta "utzita" dagoela esateko faktore bat baino gehiago aipatu dituzte herritarrek: industria eremu zaharkituaren hirigintza aldrebesa, urteekin eta bateko zein besteko krisiek jota hutsik geratu diren pabilioi eta lokal askoren egoera tamalgarria, industrialde horrek lehendik zeuden etxebizitzak jan izanak hango bizilagunei ekarritako ajeak... Hala ere, zikinkeria, zaborrak eta beste auzoekin alderatuta Landetan murriztago diren zerbitzuak dira guztien ahotan daudenak; kale garbitzaileak "astean behin bakarrik" pasatzen direla nabarmendu dute, esaterako, Biek aroztegikoek eta Horrillok. Horrillo eta Larrañaga jakitun dira auzoa sakonean eraberritzeko dauden zailtasunez, baina bertakoen bizi kalitatea



hobetzeko gauzak egin daitezkeela uste dute. "Auzoak auzo izan behar badu, denetarik falta" dutela diote. Dendarik ez dago, kutzazainik ez dago... eta garai batean adina ez, baina orain ere ez dira gutxi industrialdera lan kontuengatik kanpotik etortzen direnak; bertan bizi direnentzat ez ezik, haientzat ere ez dago Landetan "oinarrizko zerbitzurik".

"Abandonatuta, triste" ikusten dute Landeta Iriarte aita-alabek: "Inork ez du kasu egiten. Autoak bazter guztietan, zaborra, astean behin bakarrik etortzen dira garbitzera, argiztapena eskas-eskasa da, jendea bizi da hemen baina errespeturik ez dago...". Horrelakoa da Arretxe kalean bizi duten errealetea, eta hitz egin duten herritarrek bat datoz esaterakoan inguru hori dela egoera okerreanean dagoena. Olaizolaren irudipena da "lehen ez bazitzaion begiratzen, orain gutxiago begiratzen" zaiola Landetari. "Lehen, gutxienez, jendearen sartu-irtena eta joan-etorriak zeuden. Orain, ez. Orain, ari gara hitz egiten hormatutako tailerrez, kristalak hautsita dituzten pabilioez... itxura pixka bat beldurgarria ematen duen auzoaz. Eta bai, utzitako auzo bat da". Jabeek pabilioiak egoera horretan zergatik dituzten, zergatik ez diren botatzen edo botatzea posible al den... Kontu horiek "nola funtzionatzen duten ideiarik ez" duela dio Olaizolak. Bakarrik daki, "utzi eta utzi", bere horretan edo okertzen doala gune batzuetako egoera, Arretxe kalekoa bezala. "Horrek zikinkeria ekarri du bazter guztietara, eta arratoiena errealitate bat da". Urteak hutsik daramatzaten lokalekin lotuta, Iriarte ahizpek ez dute ulertzen zergatik eraiki berri dituzten Landeta hiribidean bertan industriadako pabilioi berriak, inguruan "lokal huts pila bat" egonda. Hutsik eta utzita gelditu diren lokal horien jabetza "pribatua" dela gogora ekarri du aitak. Hala ere, Leireren ustez, udalak egin beharko luke zerbait, esku hartu beharko luke, pabilioi huts horiei irtenbideren bat emateko. "Bota behar badira bota, eta eraiki berriak hor", dio Goretik.

Izan ere, Arretxe kalean, aspalditik hutsik dauden pabilioi zaharrak arazo iturri izan dira eta dira. Beren enpresaren aurrez aurre dauden garai bateko Sprint lantokiaren lokalen adibidea aipatu dute iriartetarrek. Droga kontsumoarekin eta zabor pilaketarekin lotuta, gatazka iturri izan dira pabilioi horiek. Kexa ugariren ondoren -"banaka ari ginen kexak sartzen, inork ez zuen kasurik egiten"-, bizilagunek eta inguruko enpresek bat eginda sinadura bilketa egin zuten. "Lortu genuen udalak lokalen nagusiari zaborra hustuaraztea eta eraikina hormatzea. Baina, lehen hor bezala, orain beste bazter batzuetan ari dira zaborrak botatzen",



dio Gorettik. Txipdun edukiontzia jarri eta hondakinak horietan botatzeko txartela behar denetik zaborraren arazoa "nabarmen areagotu" dela gaineratu dute Biekekoek. Abandonatutako industria eraikinena "desastre bat" dela dio Olaizolak, usteltzen utzi den arazo bat. "Herriko eta herritik kanpoko zenbat eta zenbat pertsona ez ote diren joan Landetara lanera... Eta, hala eta guztiz ere, uste dut ez dela behar bezala mimatu izan auzoa. Hiribideak-eta egiten ditugu, herriko erdigunea zaintzen dugu, eta horiek ere egin behar dira, noski, batari bestea kendu gabe. Baina hainbeste jende mugitu izan den lekua izanik, nolatan ez da lehenago sartu eskua Landetan?", galdetzen du. Sinadura bilketaren ondoren udala "dezente mugitu" zela diote Biekekoek, baina egindako esku hartzea puntuala izan zela gaineratu dute, eta "jarraipena" da eskatzen dutena. "Hau ere Azpeitia da", aldarrikatu dute. Landetan lan egiten duten enpresek begirune gehiago merezi dutelakoan dago Goretti, "baina batik bat hemen bizi den jendeari zor diote begirunea", dio.

Bestelako Arretxe kalea eta Landeta ezagututakoak dira Jose Ignacio Iriarte, Olaizola, Horrilo eta Larrañaga. Iriartek "ia bizi osoa" darama auzoan lanean. Duela mende erdiko Landeta ezagutu zuen, beraz, eta ordutik hona "aldaketa ikaragarria" bizi izan duela dio. "Kale hau berau [Arretxe] dena tailerra zen, ezker-eskubi. Denak martxan ezagutu nituen. Eta orain, zenbat daude martxan? Hiru? Lau? Ni Landetan lanean hasi nintzen garaitik, inguru honetan, 30etik gora tailer faltako dira, tailer koskorrak. Egia da batzuk industrialde berrira joan zirela, eta horietako bakarren bat edo beste enpresa handi egin dira han. Baina gehiago dira itxi direnak, mordoak". Landetako hiru bizilagunek, berriz, beren haurtzaroko Landeta ekarri dute gogora. "Landeta berdea zen", dio Horrillok. Eta "Benidorm" zuten Landetan: Aroztegi baserritik gora, Larre inguruko zelai batean elkartzen ziren auzoko andreak eta umeak udan, eguzkia hartzeko eta arratsalde pasa. Soroak eta baserriak aipatu dituzte, eta "auzo giroa". Landeta beren ume eta gazte garaietan "bizigarriagoa" zela iritzi dio Horrillok. Larrañagak, berriz, ordukoa eta gaur egungoa "garai desberdinak" direla azpimarratu du. Olaizolak ere ez du "idealizatu nahi" bere haurtzaroko Landeta, baina gogoan ditu beren etxetik aurrera joanda, "orain tailerrez josita dagoen leku horretan", zeuden baratzeak, eta haietan zein tailer arteetan egiten zituzten jolasak.

Badakite Landeta hura ez dela itzuliko, baina argi dute dagoen Landetan zer egin eta zer hobetu asko dagoela, eguneroko zaintzetatik hasi eta hortik aurrerakoetan. ■■■

7.ZENBAKIA-2021-AZAROA

GUKA

UDANE JUARISTI ETA BARBARA STAMMEL

**SORTZAILEEN
DIRDIRA**





Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

MAITEMINDU GAITEZEN



ARITZ MUTIOZABAL

"Artista batek ez du sekula beste artista batez maitemindu behar". Marina Abramovic arte-sortzaile serbiarraren baieztapen irmoak zentzua izan dezake bide propioa bilatu nahian dabilenarentzat, baina gustuko erreferentziei muzin egitea edo aitzindarien iturrietatik ez edatea kasik ezinezkoa izaten da. Arazoa da, konturatu gabe, edo horretarako kontzientziarik ez dugulako, ikuspegi matxista gailentzen zaigula etengabe, eta erreferentzia artistikoak zerrendarazten hasten garen aldiro gizonezkoak ateratzen zaizkigula perretxikoak bezala: Van Gogh, Picasso, Oteiza, Basquiat, Pollock, Velazquez, Da Vinci, Monet, Rodin, Rubens, Duchamp, Cezanne... *Ze esan duk? Emakumezkoak ez?*

Avignongo neskatilak, besorik gabeko Miloko Venusa, maja jantzita eta biluzik, soineko desererosoz jantzitako Meninak, Marilyn Monroe eta Liz Taylorren serigrafia, biolontxelo bizkarreko emakumea... Mo-

delo izateko hamaika abagune eman zaie, objektu bezala miretsiak. Baina begi ere izan dira eta badira, garaian garaiko begi kritiko-sozialak, eta iraultza artistikoetan ere parte hartu duten arren, dominek bular iletsuetan bukatu izan dute beti. Dagokien aitortza barrunbeetan zokoratu dute: gizarteko beste esparru guztietan gertatu den istorio eta historia bera errepikatu da artean ere.

Oraintsu, Bilboko Guggenheim museoak *Emakumeak abstrakziogile* erakusketa interesantea ireki du, Parisko Pompidou Zentroarekin elkarlanean. Bertan, 110 emakumezko artistaren 400 lan abstraktu baino gehiago bildu dituzte, 1860ko hamarkadatik 1980ko hamarkadara artekoak. Aurkezpen egunean, Pompidou zentroko arte arduradun Christine Macelek nabarmendu zuen arteak ez duela sexurik, baina artistek bai, eta "ikusezintasunak arrazoi soziologikoak" dituela.

Sonia Delaunay-Terk, Anni Albers, Louise Bourgeois, Judy Chicago, Lygia Clark, Alexandra Exter, Lee Krasner, Gret

Palucca, Olga Rozanova, Sophie Taeuber-Arp, Atsuko Tanaka, Liubov Popova... Guggenheimen ikusgai dauden artistetako batzuk dira. Agian, iritzi publikoarentzat –gizarte eredu honentzat– ezezagunak dira, baina geure baitan osatzeke dugun artearen historia lantzen hasteko oso baliagarriak. Tartean, gainera, bi euskal artistaren obra bana jaso dituzte: Esther Ferrer eta Elena Asin-senak.

Askotan, ordea, ez dugu urrutira joan beharrik etxean ditugun talentuez ohartzeko. Ez dugu zertan utzi denbora iragaten, atzerriko izendapen batek aitortza egiten dien arte itxaron, geure artistek duten mailaz harro sentitzeko: Zuhar Iruretagoiena, Udane Juaristi, Jone Saizar, Aran Santamaria, Barbara Stammel, Malen Agirre, Ainize Txopitea, Maite Unzurrunzaga, Malen Aménabar... Bakoitza bere esparruan, bere jakin-min eta interesekin, kontuan hartzeko proposamenak lantzen ari da. Maitemindu gaitzen beraz haietaz, maitemindu gaitzen haien sormenez. ■

Argitaratzailea: Urolako

Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 4.700 ale



Enpresa laguntzaileak:



KONPLIZEAK

Barbara Stammel eta Udane Juaristi

Barrura begiratzeko erretratuen aurrean eseri da Barbara Stammel. Udane Juaristi, berriz, kanpora begiratzeko leihoak diruditen margolanen aldamenean. Itxura batera, oso artista ezberdinak dirudite, eta haien emaitzak horren erakusle dira. Dena dela, uste baino gehiago dute komunean, batez ere, arte-sorkuntza hizpide badute.

Testua: **Aritz Mutiozabal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Getariako herrigunea atzean utzita, San Prudentzio bideak gora egiten du. Sigi-saga urbanoak mahastietako lur koloreekin uztartzen dira autoan aurrera egin ahala. *Aizpurua txakolina* kartela jartzen duen tokia da bidegurutzea: ezkerretara harturta dago Barbara Stammelen estudioa. Anfitrioi onak bezala, harrera egitera atera da, eta haren atzetik Udane Juaristi ere bai. Bi belaunaldi ezberdinetako artistak dira, baina biak ala biak margolariak dira, eta biek ala biek sentsibiltate bera partekatzen dute artearekiko. Barbara Stammel alemaniarra da (Soecking, 1960), baina 25 urte baino gehiago daramatza Getarian bizitzen, eta azken urteetan sona handia lortu du bere aurpegi piktoriko nabarrekin. Hiri-paisaien ildotik jo du batez ere Udane Juaristik (Azkoitia, 1985) bere margolanetan, eta ikusgarriak dira han eta hemen iru-

dikatu dituen mural erraldoiak, artea kalera eramanda; urrutira joan gabe, adibidez, duela hilabete batzuk Getarian bertan egindako saregileena. Hain justu ere, lan horren harira sortu zen bi gonbidatuak elkarrekin solasean esertzearen ideia: azkoitiarra murala margotzen ari zen portuan, eta getariarrak liluratuta begiratzen zion. Hamabost urte badira elkar eza-gutzen dutena, eta beraien begi argiek eta irribar garbiek ez dute gezurrik esaten: elkar miresten dute. Hitzordura beraien hainbat margolan ekarri dituzte, eta zintzotasunez analizatu dituzte. Laudorioak baino ez dituzte izan batak bestearen lanekiko, egin duten eta urratzen ari diren ibilbideagatik. Konplizitatea arnasten da haien artean.

Estudio edo tailer batean gaude, zehazki, Barbararen arte laborategian. Virginia Wool-



fek aldarrikatzen zuen gela propio hori bezala, artista bakoitzak ezinbestekoa du espazio finko bat sortzeko?

Udane Juaristi: Oso inportantea iruditzen zait niri behintzat. Azkenean, zeure txokoa eduki behar duzu horrelako artelan handiak egiteko, horma askorekin eta dena zeure gustura jarrita, atseginez lan egiteko.

Barbara Stammel: Baita intimitatean aritzeko ere. Inork ez du ikusten zertan ari zaren, zeuk erabakitzen duzun arte noiz jarri jendaurrean. Baina zuk, Udane, kalean jarduten duzu lanean, eta nik ezingo nuke hori egin. Niretzako amesgaiztoa litzateke.

U.J.: Bai, ez da gauza bera zuk bake-bakean lan egitea ala mural bat edo pintaketa bat kalean egitea, jendea begira duzula. Pixka bat alde batera utzi behar duzu faktore hori hor dagoela.

Zerbait sortzen ari zaretenean, zeuen burbuila barruan isolatzen zaretan horietakoak al zarete? Ala gustuko duzue norbaitek argibideren bat ematea?

B.S.: Niri ez zait gustatzen iritzirik jasotzea hasieran. Obra nahiko bukatuta dagoela irizten diodanean, orduan semeari eskatzen dizkiot aholkuak. Senarrari, ordea, ez. Hark beti esaten dit margolana ez ukitzeko gehiago, egindakoa ondo dagoela, eta horrek nolabait geldirarazi egiten nau.

U.J.: Galdetzen diozun pertsonaren arabera; batzuetan baldintzatu egiten zaitu. Nik ere neure kasa egiten dut lan hasieran, baina gero gustuko dut jendeari galdetzea. Jakina, jasotzen duzun erantzunaren arabera, agian aldaketak egiten dituzu ala ez.

Oker ez banago, bada elementu inportante bat biok abiapuntutzat hartzen duzuen pintzelekin jolasean hasi aurretik, eta hori argazkia da.

Udane: Hala da. Nik buruz ez dut ezer ere egiten. Argazki bat edo batzuen bitartez hasten naiz lanean. Beti erreferentzia bat eduki behar dut.

B.S.: Nik bietara egiten dut. Margolan batzuetan argazkietatik oinarritzen naiz, baina beste batzuetan, aldiz, buru barruan ditudan irudietatik abiatzen naiz.

Bertigorik ematen al dizue oihal zuri batek?

B.S.: Batere ez; margotzen hasteko gogoazartzen zait.

U.J.: Niri ere gauza bera gertatzen zait. Bertigorik ez dit ematen. Niretzako zoragarria da mihise zuri batzuk edukitzea. Gauza berri bat egiteko irrika sartzen zait. Sekulako motibazioa ematen dit.

B.S.: Garrantzitsuena oihalaren tamaina izaten da. Zentimetro bat gehiegi baldin badauka, zaila izaten da ongi biribiltzea. Izan ere, barruko irudia buruan daukazu, eta badakizu jada nola izan behar duen. Baina oihal zuri bat...

U.J.: Ederra da, ederra. Zenbat eta mihise gehiago izan, orduan eta gogo gehiago dituzu ideia diferenteak lantzeko.

Inspirazioak lanean harrapatu behar zaituela dio esanak. Baina lanean ez zaudetenean ere etortzen al zaizkizue irudiak burura? Zentzu horretan, etengabe ari al zarete sortzen?

U.J.: Nik uste dut etengabeko jarduna dela. Egunerokotasunean, lanean egon ez arren ere, burua martxan izaten dut; izatez, kalea izaten da nire inspirazio iturria. Eguna joan eta etorri, "hau eta bestea egingo dut" izaten dut buruan.

B.S.: Gero, koadro batek irtenbide ugari ematen dizkizu, baina azkenean, soluzio bakarra aukeratu ahal duzu. Nolanahi ere, beste irtenbide horietatik ateratzen dira gerorako milaka koadro.

U.J.: Hori da! Azkenean, ideia ezberdinak ateratzen dira prozesuan zehar.

Sormena ez da amaitzen?

U.J.: Momentuz, ez!

B.S.: Posible da erakusketa bat egin ondoren zulo bat sentitzea zeure baitan, eta orduan, sormena ez da ateratzen. Agian, hilabete bat edo irauten du.

U.J.: Bai, izaten dira une horiek, inspirazioa nondik atera ez dakizunak. Baina, tira, beti sortzen da zeozero gero.

Orduan, hustualdiak badira. Une horiek tragikoak al dira?

U.J.: Ez nuke esango tragikoak direnik, baina nahi duzu zerbait atera, eta sortzen zaizu halako egonezina.

B.S.: Lehen gehiago kezkatzen ninduen halako une batek; gaur egun, jada ez. Badakit zerbait etorriko dela lehenago edo geroago, eta azken



“Normalean, zu zeu zoaz erakusketa ikustera, baina nire proposamenetan, aldiz, koadroek begiratzen zaituzte”

boladan zain geratzen naiz. Koadro baten prozesuan nagoenean ere, momentu batean ezer etortzen ez bazait, itxaroten geratzen naiz: egunero begiratzen diot margolanari, eta uea iristen denean jarraitzen dut.

U.J.: Itxaroten jakite hori inportantea da. Askotan begira eta begira zaude, baina begira egonagatik ez da soluzionatzen. Agian, denbora behar duzu, egunak pasatzen utzi, ideia hori etortzeko.

B.S.: Eta denbora bat pasatzen denean, ezberdin ikusten duzu obra.

Barbararen azken urteetako margolan gehienak aurpegiak dira, eta Udanerrenak, nagusiki, hiri paisaiak, nahiz eta pertsonak ere ageri diren. Nolabait definitze aldera, Barbararenak barrura begiratzeko ispiluak dira eta Udanerrenak kanpora begiratzeko leihoak. Zuek nola ikusten duzue?

U.J. eta B.S.: Polita da diozuna!

U.J.: Ez naiz sekula horretan pentsatzen jarri, baina interesantea iruditu zait. Barbararenekin erabat ados nago. Izan ere, oso gardenak diren obrak dira, eta oso barrutik irtendakoak. Niri mordoa gustatzen zait egiten duena, nola den horren ausarta.

B.S.: Udane, zure margolanari begira jarrita, konturatzen naiz ez duzula ia-ia ezer jartzen. Puntu batzuk baino ez dira, eta puntu gutxi horiekin jada dena esanda dago. Bisturiarekin eginiko lana da zurea, benetan zehatza. Azkenean, norbere begiak ematen dio irudiari forma.

U.J.: Pasatzen zaidana da gauzak egiten noan heinean erabakitzen dudala jada ondo dagoela. Zaila da gelditzea, eta a tsegin dut gauzak bozeto moduan edo bukatzeke uztea. Askotan, estutzen ari zarenean, gorpuzak "honaino" esaten dit, eta barrutik ateratzen zaidan zerbait da.

B.S.: Arte bat da jakitea noiz laga eta noiz jarraitu margotzen. Askotan, gehiegi egiten dugu.

U.J.: Erraza da maiz segi eta segi aritzea, eta askotan prozesua bera politagoa da. Horrergatik, interesantea izaten da argazkiak ateratzea, ikusteko zer-nolako bilakaera izaten ari den. Oro har, ez da erraza bide hori.

Deigarria egiten da zeinen sarkorrak diren Barbararen aurpegietako begiak, ia beldurtzeko adinakoak, eta Udanereren lanetan, berriz, pertsonak askotan nola bizkarrez dauden edo albo batera begiratzen duten, ikuslearekiko kontaktua ekidin nahian. Zuen izaera agertzen dute?

U.J.: Nik uste dut artelan bat norbere ispilu handi bat dela, eta, azkenean, artista bat biluztu bezala egiten dela. Barbararen kasuan, oso ausarta dela iruditzen zait, bere margolanetan dena azaltzen duelako. Horrelako aurpegi bat aurkezten duenean, aurrez aurre eta begi horiekin, dena adierazten du. Nire kasuan, hori guztia kamuflatuago geratzen da. Agian izan daiteke beldur batengatik. Nik pentsatzen dut askotan muralak egiten ditudanean-eta kaleko jendea gehiago identifikatzeko dela. Margotzen ditudan pertsonaiak anonimoak

dira, eta bizkarrez egonda, edozein izan daitekeela iradokitzen dut.

B.S.: Gizakiaren arintasuna ere igortzen dute zure lanek. Eszena horretan sartzera gonbidatzen zaitu, eta koadro honetako [koadro bat seinalatuz] pertsona niretzako zu zeu zara, Udane.

U.J.: Ni izan naiteke, edo beste edozein.

B.S.: Margolanak barrura sartzera gonbidatzen zaitu.

U.J.: Interesgarria da jakitea zer ikusten duten beste pertsonak zure lanetan, askotan ez baituzu pentsatzen zer egiten ari zaren. Azkenean, inkontzienteki ateratzen zaizkizun gauzak dira, eta gauza ederra da gero besteen ekarpenak jasotzea.

Eta, Barbara, zure begirada piktoriko horiek nondik datoz?

B.S.: Zinematik-edo... Gaur egun, horrelako aurpegi handiak edozein lekutan aurki ditza-kegu, ez da hain berezia, hirietan ikusten baitira iragarkiak, eta denak handiak dira. Bestalde, besteari zuzen begiratzeko behar bat sentitzen dut; lehen gehiago izaten nuen, orain joan egiten zait pixka bat. Interesgarria egiten zitzaidan koadro batek publikoari zuzenean begiratzea, hau da, dinamika iraultzea. Normalean, zu zeu zoaz erakusketa ikustera, baina nire proposamenetan, aldiz, koadroek begiratzen zaituzte.

Koloreei dagokionez, marroiak nagusitzen dira.

B.S.: Nik pigmentuekin egiten dut batez ere lan, eta lurra erabiltzen ditut margotzeko: lur gorriak, marroiak, urdinak...

U.J.: Oso organikoak direla edo naturarekin erlazio handia dutela dirudi.

B.S.: Gehienak lurreko hautsak dira, bai.

Zure lanetan, Udane, kolore biziak antzema-ten dira. Bizipoz gehiago dute, beharbada.

U.J.: Fosforito gehiago erabiltzen ditut, baina ez dakit bizipoza den. Momentu hauetan kolore horiek ateratzen zaizkit margotzerakoan. Sasoi batean kolore ilunagoak erabiltzen nituen, eta uste dut hori aldatzen joaten dela norberaren behararen arabera. Egia da kolore bizi horiekin nabilela, baina argi-itzalak ere gustatzen zaizkit; argiak nola jotzen duen eta hori



“Artelan bat norbere ispilu handi bat da, eta, azkenean, artista biluztu bezala egiten da”

jasotzea, alegia. Bestalde, zuri-beltza ere gogoko dut, lehengo argazkiak jasotzea eta irudi koloretsuekin txertatzea. Kontraste hori bilatu nahi izaten dut.

Artista bakoitzak errealitatea interpretatzeko bere sentsibilitatea du. Hori berezkoa da, bilatu egin behar du, hezi...?

U.J.: Nik uste dut norberari irteten zaiona dela. Baina inportanteena da irteten den hori zurea izatea, horrek egiten baitzaitu azkenean berezi.

B.S.: Hori guztia pentsatu gabe gertatzen da, gainera.

Baina kontuan izan behar da zuek arte ikasketak dituzuela, ezta?

U.J.: Jakina, hori ere garrantzitsua da. Aurrez ikasketak egin ditugu, eta horregatik dakigu horrela margotzen, baina sentsibilitate hori berezkoa izaten da. Alde batetik, ikasten du-



zuna dago, eta bestetik, barrutik ateratzen zaizuna.

B.S.: Horretaz aparte, osatzen duzun ibilbidea dago, eta lan honetan hartzen duzun esperientzia.

Estilo zehatz bati lotuta geratzeko beldur al zarete, ala iruditzen zaizue horrek egiten duela aparteko artista bat?

U.J.: Katalogatuta geratzeari beldurrik ez diot. Margolan bati nirea dela antzematen diotenean, hori seinale ona dela uste dut. Azkenean, zuk artista modura ezaugarri batzuk dituzu eta jendeak zu horiengatik ezagutzea ona da. Kontua da nik hiri-paisaia bakarrik ez dudala margotzen, eta azkenaldian abstrakturantz doazen ideia batzuk lantzeko beharra sentitu dudala. Barbararen antzera, libreago aritzeko nahia,

alegia. Emaizta diferente horrekin erakusketa bat egin nuen, eta jende batek esaten zidan hor aurkeztutakoa ez zela nirea. Emandako aldaketa arraroa egiten zitzaien, baina nireak dira beste ikuspegi batetik landuak izan arren. Beraz, hor nabil lanean, baina oraindik ez dut guztiz neregianatu estilo hori.

B.S.: Baina erabat ezberdinak ez dira. Nik uste dut egindako bidea gerora ikusiko dela; orduan ikusiko da bere lanean emandako aldaketak eta izandako interesak. Niretzat ere ez da arazo bat, ez nau kezkatzen katalogatzearen kontu horrek. Nahi baldin badut beste edozer gauza margotzen has naiteke berehala, baina berezko aldaketa pixkanaka-pixkanaka etorriko da, eta ez egun batetik bestera. Hala ere, nahi dut aldaketa bat eduki urteen poderioz.

U.J.: Eta aurpegiekin jarraitu arren, aldaketak izango dira prozesuan: margotzeko moduan, trazuetan... Garapena beti egongo da.

Eta publikoari buruz zer iritzi duzue? Uste duzue publikoak orokorrean artearekiko sentsibilitatea baduela, ala zentzu horretan asko dago egiteko?

B.S.: Denetarik dago. Batzuk oso zaleak dira, eta beste batzuk ez. Batzuek dio-

te egiten duguna txorakeria bat dela.

U.J.: Askotariko ikuspuntuak daude, baina, oro har, hurbiltzen zaizunak kritika positiboa egiten dizu. Normalean, jendea ez da gauza txarrak esaten hasten, nahiz eta badiren salbuespenak.

Eskualdean, adibidez, badira hainbat erakusketa areto eta arte espazio, eta askotan nahiko hutsak egoten dira publikoari dago-kionez. Alde horretatik, arte-hezkuntza bat beharrezkotzat jotzen duzue gizartean?

U.J.: Hezkuntza ematea inportantea da, noski. Txikitatik artearekiko sentsibilitate bat transmitzea hurrei pauso handia da. Edonola ere, badago artearekin sentsibilizatuta dagoen jendea, eta erakusketei dagokienez, batzuetan jende gehiago ibiliko da eta besteetan gutxiago. Alde horretatik ez naiz inoiz kexatu, egia

esan. Nire kasuan, behintzat, ongi joan dela iruditzen zait: antolatu ditudan erakusketetara joan den jendearekin gustura geratu naiz.

B.S.: Nik ez dakit nola adierazi ondo, baina agian ezin dugu behartu edo ezin diogu eskatu gizarteari gugana etortzeko, artea zeinen polita den esatera eta margolanetan interesa edukitzera. Horrelakorik ezin diet nik eskatu besteei. Hala ere, falta da jendea bere buruarekin gehiago harremantzea. Gaur egun dena oso azkarra da: dirua, lana, familia, haurrak eskolara... Balioak aldrebestuta daude. Dena nahi dugu berehala, eta, azkenean, oinarrizko gauzak sentitzea ahaztu zaigu. Ondorioz, jada ezin duzu kontakturik izan koadro batekin ere. Margolana, finean, zure bizitzako azken istorioa da. Beraz, gure inguruari eskatuko nioke sentitzen hasteko, zertarako gauden bitzita honetan, eta, ondoren, loretuko da literatura, antzerkia, artea eta gainerako guztia.

Artea erakusketa aretoetan, galerietan eta museoetan erakutsi izan da betidanik. Baina eremu berriak eta proposamen ezberdinak sortzen ari dira. Beharbada, muralekin egiten den bezala, artistek kalera atera beharko lituzkete beraien lanak?

U.J.: Nik muralismoa landu izan dut, duen zentzu hori gustatzen zaidalako. Artelan bat kalean uzten duzunean denentzako bezala geratzen da. Erraztu egiten du bere ikusgarritasuna, jende orok ikusteko aukera baitu. Horrek guztiak asko motibatu nau muralak margotzerako orduan, eta besteen lanak kaletik pasieran noala ikustea ere asko gustatzen zait. Oso polita iruditzen zait. Artea eta jendearen arteko harreman hori gerturatu egiten du. Baina biak dira ederrak, galeria batek eskaintzen dizun txukuntasuna ere dotorea baita.

Zuk, Barbara, zure lanak basoan erakusteko parada izan zenuen duela bi urte.

B.S.: Bai, oso esperientzia polita izan zen hura, baina ez nuen nik bakarrik parte hartu. Azken



Muga jaialdia izan zen, Azkarate mendian, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan. Bertara gonbidatzen dituzte edozein arlotako artistak: musikoak, bertsolariak, antzezleak, eskulturgileak...

U.J.: Han bertan margotu al zenuen zuzenean?

B.S.: Hori zen nire hasierako ideia. Hemen atzean [horma seinalatuz] dugun margolan honekin joan nintzen. Tailerrean prestatu nuen pixka bat, eta han bukatzeko asmoa nuen. Kontua da han zuhaitzen artean zintzilik jarri zutela, eguzkiak betean jotzen zuela eta hostoak enbarazu egiten zutela, eta, azkenean, ez nuela ukitu ere egin.

U.J.: Ziur oso polita geratu zela landare artean.

B.S.: Gainera, publiko benetan berezia izan zuen: behi talde bat. Bi ama beraien txahalekin

etortzen ziren egunero-egunero, eta margolanaren inguruan pausatzen ziren. Kurioa!

Orduan, aretoak eta kaleak elkarren osagarri dira.

U.J.: Ez da bata ala bestea. Elkar uztartu daitezke inolako arazorik gabe, espazio oro dira ongietorriak, eta denak dira ederrak.

B.S.: Ez dakizu zeinen pozgarria den areto polit bat eskaintzen dizutenean zure margolanekin betetzeko, eta zuk nahi duzun moduan.

Gizartean bada aski zabaldutako aurreiritzi bat, artistak bohemio samarrak zaretela dioena, baina zehaztu behar da lanbide errespetagarria dela zuena. Ogibide zaila da?

U.J.: Bai, lanbide zaila bada.

B.S.: Nik uste dut muralekin-eta nahiko ongi mugitzen zarela zu, Udane. Jada leku ugarian aritu zara hormak margotzen.

U.J.: Horretarako artistak asko mugitu behar du. Denbora osoan lanean aritu behar du, hara eta hona joanez, zure obra erakutsiz. Nik esango nuke ogibide zaila baino gehiago neketsua dela.

B.S.: Hori da. Izan ere, inizatiba beti zure partetik hasten da.

U.J.: Zuk ibilbide mundiala egin duzu, Barbara.

B.S.: Baina eskaintza gutxi iristen dira norberarengana, beti joan behar duzu horien bila. Beti ere behar duzu hazia zerbait etor dadin.

U.J.: Azkenean, zeozer egin behar duzu, eta horrek aterean bat irekiko dizu. Aitzitik, zain egonda ez zaizu inor etorriko. Hori oso zaila da. Beraz, tematia izan behar duzu, eta lanean jarraitu etengabe. Nik uste dut beti izango dela horrela.

B.S.: Nahiz eta sentitzen ari naizen orain gauzak aldatzen ari direla zertxobait. Ezin dut esan zergatik, baina sentsazio hori daukat.

U.J.: Hobera diozu?

B.S.: Bai. Arteak bestelako bide batzuk hartuko dituela. Alde batetik, artea non erakutsiko den, aretoetan ala kaleetan, eta bestetik, nola egingo diren salmentak, galerietan ala Internet bidez. Izan ere, gaur egun asko sarean saltzen da.

U.J.: Gero, sare sozialak ere inportanteak dira zure lana ezagutzera emateko ere, jende askorengana iristeko bidea ematen dizu. Interesantea da hori ere.

B.S.: Tira, eremu horretan oso txarra naiz ni.

U.J.: Lana eskatzen du horrek ere: zure lanen argazki onak atera, ondoren horiek sareetara igo, azalpenak idatzi...

Teknologia berriek beste arnas bat eman diote arteari? Zuen artelanei erakusleihozababalago bat emateko, nolabait?

B.S.: Teknologia berriei esker, askoz ere jende gehiagok ikusten ditu zure lanak. Hori argi eta garbi dago.

U.J.: Nik orain gutxi mural bat egin dut Alemanian...

B.S.: Barkatu, non?

U.J.: Ea izenarekin asmatzen dudana... Ludwigshafen.

B.S.: Bai, bai, Ludwigshafen. Han goian dago, herrialdearen iparraldean.

U.J.: Bitxia izan zen nolatan deitu zidaten Alemaniatik mural bat egiteko, nola ezagutzen zuten nire lana. Esan zidaten sare sozialengatik zela, Instagram bidez ikusi zutela zer nolako gauzak egiten nituen, eta handik lortu nuen aukera hori. Azkenean, badauka bere indarra.

Eta pandemia garaiak nola eragin dizue?

B.S.: Eragin digu, noski. Baina tailerra etxean bertan dudanez, bertan geratu eta pintatzen aritu naiz.

U.J.: Tarte horretan erakusketaren bat egitea tokatu zaienei gehiago eragingo zien, segur aski. Nik, Barbarak bezala, etxean atondu nuen nire txokoa, eta margotzen jarraitu nuen. Egia esan behar badut, lasaitasun bat izan zen; izan ere, lanak egin eta egin ari nintzen data zehatz batzuetara lotuta, eta apur bat estresatuta nentzen. Geldialdia etorri zenean, zera pentsatu nuen: "Orain egingo dut nahi dudana eta gogoak ematen didana pintatuko dut". Lasaitu egin nintzen, bai, eta ongi etorri zitzaidan.

Kulturaren sektorean, arlo gehienentzat egundoko egurra izan zen. Arte munduan ere eragin bera izan al zuen, dela galerietan, dela salmentetan?

U.J.: Bai, gauza asko geratu ziren bat-batean. Nire kasuan, esan bezala, lasaitasun hori eman zidan. Kontraesana dirudi, baina hala gertatu zitzaidan. Ondoren, makinaria berriro martxan jarri zenean, zuk zeuk ere betiko martxari heltzen diozu. Alegia, ni atzera estresera itzuli nintzen.



B.S.: Adibidez, iaz Iker Antiarekin batera erakusketa bat egitekoa nintzen maiatzean, eta, azkenean, atzeratu egin behar izan genuen irekiera data. Batez ere, gu geu lasaiago ibiltzeko; neurri gutxiago dagoen momentu batean egiteko asmoarekin gabiltza. Eta, jakina, gale-rientzako ez da batere sasoi ona izan, artista guztien erakusketak atzeratu behar izan baituzte.

Jada nolabaiteko normaltasun baten barruan sartuta, zer proiektuekin ari zarete orain lanean? Epe laburrera begira zer duzue esku artean?

U.J.: Esploratzen nabil, gauza berriak sortzen, eta ikusiko dugu zer ateratzen den. Bestalde, hemendik gutxira beste muraltxo bat egin behar dut Getarian...

B.S.: A, bai? Eta, non?

U.J.: Balentziaga Museoaren alboan, Balentziaga kalean bertan, etxe barrutara sartuta dagoen hormatxo batean.

B.S.: Bai, badakit non dagoen. Kanpoko patio bat duena da.

U.J.: Bada, hemendik lasterrera egiten hasiko naiz, eta abisatuko dizut, Barbara.

B.S.: Sin falta, aditu!

U.J.: Momentuz, mural horrekin jarriko naiz buru-belarri, eta gainerakoan, margotzen jarraituko dut. Erakusketaren bat sortzen baldin bada, ongietorria izango da!

B.S.: Ni enkargu batekin nabil. Zazpi koadro handi egiteko enkargu potolo bat da, eta horietan zazpi pertsona erretratatu ditut. Aurtengo urtea eta datorrena proiektu horri eskainiko dizkiot; horretan ariko naiz buru-belarri.

Aurreratu al ditzakezu zazpi pertsonaia horiek zeintzuk diren?

B.S.: Momentuz, ezin dut ezertxo ere esan. Proiektu batean murgilduta nago, eta beste pertsona batzuk ere badaude tartean. Orduan, unea iristen denean jakinaraziko dugu.

U.J.: Adi egongo gara, orduan! ■



Ikusi eskusiban Barbara Stammel eta Udane Juaristi egindako elkarrizketaren bideoa QR kodea eskaneatuta.



Desnibela 673m
Zailtasuna ●●●●●
Luzera 8,4km
Denbora 1ordu 51minutu

Erreferentziak
0.00 Andra Mari Zeruratzea Parrokia
0.12 Santa Barbara
0.55 Arriaundi
1.22 Askizu
1.51 Zumaia



MAHASTIEN BIDEARI JARRAIKA

MIREIA GALARZA BASTIDA

Denentzat da ezaguna Zarautz eta Zumaia lotzen dituen kostako N-634 errepidea. Hala ere, bada hortik ez hain urrun paisaia beraz gozatzeko aukera ematen duen beste bide bat: Txakolinaren Ibilbidea. Zarauzko Andra Mari Zeruratzea parrokia aurretik hasi behar da ibilbidea, handik Vista Alegre auzora jarraitzeko. Horixe da ibilbideko zati zailenetakoa, malda nabarmena baitago bertan. Vista Alegretik Torreoirra jo behar da; hori atzean utzi, eta goraka jarraitu behar da, Santa Barbara ermitarantz. Bertan, Zarauzko ikuspegi paregabeaz gozatzeko aukera dago.

Ibilbide nagusira itzulita, mahastiz inguratuta, Getariako lurretara jarraitu behar da, eta han, bi aukera daude. Goraka doana aukeratu, El-kano txakolindegiraino. Handik Garate gora iristen da, eta errepidea tentuz igaro ostean, maldan gora jarraitu behar da.

Apurka-apurka, Zumaia gerturatzen hasiko da mendizalea, ez, ordea, lehenago Askizun geldialdia egin gabe. Taberna irekita badago pintxo bat lasai jan ostean, hartutako bihurgunera itzuli eta bidean aurrera jarraitu behar da. Oraingoan, ordea, dena aldapa behera da, Zumaia iritsi arte. Handik autobusez, autoz edo trenez itzul daiteke Zarautzera.

Motzean

Txakolinaren ibilbideak 7,61 kilometro inguru ditu, 286 metroko desnibelarekin, eta Done Jakue bidearen zatia ere bada. Bi ordu behar dira gutxi gorabehera ibilbidea egiteko. Hala ere, denborarik ez dutenentzat edo ibilbide motzagoa nahi dutenentzat bada aukera ibilbidea Zarautzen hasi eta Getarian amaitzeko. Garate goitik errepidea Getaria aldera hartuta jaitsi daiteke, esaterako, herriko erdigunera.

Nola iritsi

- **Eskualde barrualdetik:** Autobusa erabiltzekotan, hartu UK03 linea, eta jaitsi Zarauzko herriko lehen geltokian. Autoan, aldiz, Meagatik joan Zarautzera, eta utzi ibildidearen hasieratik gertu samar; Munoa aparkalekuan, esaterako.
- **Kostako beste herrietatik:** Trena hartzea aukera ona izan daiteke.



Xabat Olaizola aurkezleak Lorentxo Portullarrume zarautzerra izan du bidelagun ibilbide osoan zehar.



TELEBISTAN ERE
GUKA! 



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com e-postara azaroaren 18a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Urriko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 45. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Alex Silva bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Asko aldatu dira tabernako ohiturak eta lan egiteko modua"

FELIX ITURRIA TABERNARIA

Gaztea zela hasi zen tabernan lanean Felix Iturria. Nork esango zion orduan 45 urte egingo zituela barraren atzean. Han eta hemen ibili da; Xanadutik igaro da, eta orain Sanjuandegin du bere txokoa. Kantoï tabernako nagusia da, eta bertan elkartu da Uztarriarekin, urte luzeetako ibilbidea erreparatzeko. Testua: **Maialen Etxaniz**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Maialen Etxaniz eta utzitakoak**.

Bizitza oso bat darama barraren atzean Felix Iturriak (Azpeitia, 1959), eta ez taberna bakarrean. Gaztea zela, Azpeitian hasi zuen ostalaritza arloko ibilbide profesionala, ordurako zerbitzari gisa aurreneko esperientziak bizita zegoen arren. Urteetan hara eta hona ibili ostean, gaur egun herrian jarraitzen du lanean, Sanjuandegiko Kantoï tabernan. Badu zer kontatua, barraren atzetik ere begiratzen baitzaio bizitzari.

45 urte daramatza Iturriak zerbitzari lanetan. Tira, zerbitzari eta tabernari lanetan; batzuetan besteen agindupean, eta besteetan bere negozioa aurrera ateratzeko lanean. Barra atzeko lehen esperientziak Hernion bizi izan zituen hark. Honela gogoratu ditu bere hastapenak: "Umetan Errezilera joaten ginen, eta Hernioko gurutze azpiko bordan taberna jartzen genuen. Zintak saltzen genituen han, baita salda, pattarra, ardoa eta orduan ezaguna zen *Sol y sombra* ere. Hernioko festetan jartzen genuen taberna, eta 14 urterekin hango mostradorean hasi nintzen lanean". Dena den, aurreneko lan esperientzia "profesionala" 16 urterekin izan zuen, Eguzkitza

kafetegian. "16 urte beteta, tailerrean lanean hasteko asmoa nuen. Orduan berehala hasten zen jendea tailerrean lanean. Fundizio lana nuen begiz jota, baina aitak bizitza osoa zeraman horretan, eta etxekoek bazekiten lan gogorra zela. Beraz, ez zidaten lan horretan hasten utzi. Handik egun gutxira iragarki bat entzun nuen Herri Irratian, zerbitzari bat behar zutela eta...". Horrela, iragarkiak tentatuta, tabernara joan eta hantxe hasi zen lanean; zehazki, Azpeitiko Eguzkitza tabernan. "Ez nuen uste bizitza osoa tabernan igaroko nuenik", gaineratu du, barrez.

Hamaika esperientzia eta ikasgai

Garai hartan jendeak "orain baino barre gehiago" egiten zuela gogoratu du Iturriak, eta bera lanean hasi zenetik, tabernako ohiturak "ikaragarri" aldatu direla nabarmendu du. "Garai hartan jendeak lanean irabazten zuena kalean eta bestelako kontu batzuetan gastatzen zuen. Egunero-egunero, etxera joan aurretik txikiteoa egiteko ohitura zegoen, eta bezeroek lanera joan aurretik *kafe konpletoa* hartzen zuten. Orduan txartel moduko batzuk erabiltzen ziren tabernetan, eta *kafe konpletoak* ohikoak ziren.

FELIX





Gainera, jendea taberna giroan asko egoten zen; lagunarte handia sortzen zen eta barre asko egiten zuen jendeak", gogoratu du nostalgiaz.

Ostalaritza ibilbidea Eguzkitzan hasi bazuen ere, han-hemenka ibili zen Iturria urteetan zehar. Eguzkitzan denbora bat egin ondoren, hango nagusiak beste taberna bat erosi zuen Bergaran (Gipuzkoa), eta hara lekualdatu zen. Bergaran zortzi urte egin eta Azpeitira itzuli zen berriro; Eguzkitzara. "Garai hartan izan nuen tabernako lana uzteko tentazioa, oso lan lotua baita, eta emaztearekin gehiago egoteko beharra nabaritzen nuen. Urtebete egin nuen tailer batean, baina urtea pasatuta, tabernara itzuli nintzen. Jarraian, Loiolako Xanadu taberna hartu nuen, eta hemezortzi urte egin nituen han", kontatu du. Bitarte horretan, beste hainbat txokotan ere ibili zen festa garaian laguntzen, hala nola Iruñeko sanferminetan, Donostiako Aste Nagusian, Oñatin (Gipuzkoa)...

Xanadu irekitzea aldaketa handia izan zen Iturriarentzat, eta ondo gogoan du hori: "Taberna txiki batean lan egitetik 600 metro koadroko lokal bat zuzentzera pasatu ginen. Aldaketa handia da hori. Xanaduk diskoteka eta dantzalekua zituen, eta berandu amaitzen zen hango lana. Atzerritar ugari ibiltzen zen: Japoniakoak, Australiakoak, AEBetatik etorritakoak, Txiletik eta Argentinatik iritsitakoak... Ezkontzak ere ugari izaten ziren orduan". Xanadun bizitako urteak "oparoak"

izan zirela aitortu du azpeitiarrak; izan ere, sasoi hartan astero-astero egoten ziren askotariko ospakizunak. "Kiruriren babes handia genuen Xanadun. Haren bitartez, bost ezkontzako egunak ezagutu izan ditugu. Orduan, ostiraletan, larunbatetan nahiz igandeetan egiten zituzten ezkontzak. Xanaduko dantzalekuarekin lan asko egin eta asko ikasi genuen. Beti zegoen zerbait: ezkontzak ez baziren, jaurnartzeak, Lagun Onakeko futbolarien bazkari-afariak, tailerretako afariak, despedidak...", kontatu du.

Baina urteak ez dira alferrik igarotzen, eta gaueko lanaren ondorioak beren azalean nabaritzen hasi ziren Iturria eta haren etxeoak. Hori dela eta, Xanadu utzi eta beste zerbaiten bila

Felix Iturria

- **Jaiotze data:** 1959ko abenduaren 12a.
- **Ikasketak:** Oinarrizko ikasketak eta bizitzan ikasitakoak.
- **Lanbidea:** Ostalaria.
- **Tabernaria ez banintz...** Tailerren batean edo, auskalo.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Deskonektatzeko, baratzean nahiz animaliekin aritzea eta motorrean ibiltzea.



hasi ziren: "Hemezortzi urteren ostean, ohartu ginen adinean aurrera gindoazela. Gaueko giroa desberdina da, eta une batzuetan oso gogorra da aurpegia eman behar izatea. Beraz, taberna txiki bat hartzea polita izan zitekeela pentsatu genuen. Ez nuen kale aldean hartu nahi, nahiago nuen auzo giroko zerbait, eta horrela, lehen Diego zena erosi genuen. Orain Kantoï taberna da, eta dagoeneko hamar urte betetzera goaz".

Gauzak aldatu dira

Iturriak azaldu duenez, urteen joanarekin asko aldatu dira kontsumo ohiturak, joerak nahiz edarien izenak. Lan egiteko modua ere asko aldatu dela dio, "onerako", gainera. "Ni lanean hasi nintzenez ez zegoen ur berorik, eta dena ur hotzarekin garbitzen zen. Egun guztia edalontziak garbitzen eta kamerak betetzen pasatzen genuen. Gaur egun, asko erraztu da lana. Lehen, kafeterak pizteko ordubete egon behar izaten zen zain, eta horregatik, lehenago joan behar izaten genuen

lanera. Ontzi garbigailua ere ikaragarriko aurrerapena izan da. Orain tabernak oso ondo prestatuta daude". Hori bai, tabernako giroa apalduta dagoela nabari du, eta haren arabera, gaur egun astegunetan jendea etxean ezkututzen da 22:00etarako.

Azpeitiarrak dio tabernako lanak alde onak eta txarrak dituela, baina bera gustura dago oraingoz. Hori bai, argi dio oso lan lotua dela, eta ezin duela nahi duenean nahi duena egin: "Sagardotegira joan nahi baduzu, futbola ikusi nahi baduzu, lagunekin atera... ezin da. Lotura handia da taberna". Dena den, "zorte ona" ere badu Iturriak: emaztearen babesean egiten du lan, biek baitaramate aurrera Kantoï taberna.

Urte luzeetako esperientzia darama Iturriak soinean, eta oraingoz ez du bere Kantoïtik ateratzeko asmorik. Hori bai, ahal duenean deskonektatzeko tarte hartzen du, kaletik kanpo duen lursaileko baratzean aritzeko nahiz animaliekin egoteko. ■■■

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako lagangailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.



BETI ZUREKIN
LAGANGAILUAK



ZUREN JARDUGO
BETI ZUREKIN
LAGANGAILUAK



BARRUPEN
TOKIAK




www.bertako.eus



Sudokua

Jose Luis Zumeta gure margolari maitatu-enetako bat da, eta hain zuzen horregatik, bere deiturarekin osatu beharko duzu sudokua, alegia Z, U, M, E, T eta A hizkiekin. Gogoratu hizki




bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Hitz gurutzatua

Idatzi irudi txikien izenak dagokien arkatzean. Ondoren, lauki nabarmenduetan egokitu diren hizkiak hartu eta ordenan jarri behean (goitik beherakoa errespetatuz). Ongi eginez gero, Zumeta margolariaren sarterria azalduko zaizu.



Zeeeeer??

Zumetak koadro asko margotu zituen. Beste margolari oso ezagun baten artelan bat ere izan zuen gogoan, eta artelan horrek eta gertaerak inspiratuta, obra bat sortu zuen. Zelan zen margolari ezagun horren artelana? Maripurtzilek badaki, eta esaten ari zaigu, baina konturatzen ate da ez diogula putzik ulertzen?

Lasai, ez da-eta larria. Ezabo itzazu B, F, L, U, M eta V guztiak eta hortxe agertuko zaizu.



Hamarrekoa

Aurki itzazu goiko Zumetaren eta honakoaren arteko aldeak. Hamar dira guztira.



Itzala



Bota dadoa!



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuririk, domino zati honek zentzua izan dezan.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

Prost! ...eta hondoraino!



IMANOL AMIANO

Ein *Prosit* kantua entzunez eta litroko garagardo bat edanez irakurri. Bestela, Rammsteinen *Du hast*. Edo Tijuana in Blueren bat. *Los Pajaritos*... berdin dio, baina märzenbier txarro batekin, hori bai).

Aurten –denok dakigu zergatik–, Iraurgiren *Oktoberfestik* ez dugu ospatu; udako oporretatik Gabonetarainoko trantsizioa eramangarriagoa egin ohi duen saskibaloi taldearen zerbeza-feria falta izan zaigu. Beharbada, urriko alean ikusi ditugun alprojez gain, besteren batzuk ere izango ziren Munichen, *dirndlak* eta lederhosenak soinean eta COVID-19 pasaporte hartzetan. Datorren urteko urriko Uztarrarian ikusiko ditugu horiek, beharbada. Baina gatozen gurera. Egin dugun basamortuko zeharkaldia eginda, aurtengoan saltxitxa, oilasko-erre eta ukondo falta –eta patata-purea, ai ama!– are eta penagarriagoa egingo zitzaigula eta, lerro hauek idazten ari nintzela, labetik atera berri, zurrumurrua iritsi zitzaidan: aklamazio popularrak (eta tabernariak) bultzatuta, abenduko zubian antolatutako aukera, betiere beste *labia*, Jonan Fernandezena, alegia, ez bazen gehiegi berotzen. Dagoeneko jakingo duzu zurrumurrua gauzatuko den ala

ez. Dena dela, bitartean, eman trago bat litroko *maşari*.

Oktoberfestik ez, baina, beharbada, *Dezemberfest* bai, beraz. Eta *Sanktothomasak* ere berehalaxe ditugu –*sanktandreasak* aurreko astean, aldamenerako bidea majo ikasita dute batzuek eta–. Hori bai, gutariko alprojok ez dute Municheko parrandazaleen zortetik izango. Zergatik? Kontatu egingo dizuet: Alemaniako enpresa batek komertzializatutako edabe baten prospektuak zioenaren arabera, hura hartuta hondorik ez zegoen; biharamunak, ordea, ez zuen horren berri eta han azaltzen zen, entzungor eta temati. Hori horrela, duela bi *oktober*, ajedunen elkarte batek enpresa horren kontra epaitegietara jo zuen, eta Frankfurtoko epaile batek arrazoia eman zien: produktu horrek ez zuela gizakion gaixotasunak sendatzeko balio, alegia; inplizituki bada ere, onartzen zuen ajea gaixotasuna dela, eta gaixotasuna gizakion disfuntzioa denez, gaixoak

**EDABE BATEN
PROSPEKTUAK
ZIOENAREN ARABERA,
HURA HARTUTA
HONDORIK EZ ZEGOEN**

atseden hartzeko eskubidea daukala. Alemaniar eta ez hain alemaniar guztiek hurrengo urteko irailaren zain –eguraldia dela eta, Oktoberfesta irailean izaten da Munichen; zer egingo diogu ba, Sevillan ere *Feria de Abril* maiatzean izaten da–, baina, noski, bertan behera utzi behar izan zuten, eta albisteak urtebete itxaron behar izan du, lugorrian utzita, alemaniarren aje olinpikoaren zain. Beste tragoxka bat litrokoari.

Baina ez pentsa, alemaniarrek ez dira egoeraz gehiegi aprobetxatzen. Euskaldunok gehiago joko genuke Latinoamerikako eredura; ez alferrik, Mexikoko estatu batzuetan eta Ekuadorren, esate baterako, igandeetan ez omen dute alkoholik saltzen; egia esan behar bada, COVID-19 kasuen hazkundearekin zerikusia duelakoan itxi dute txorrota –baina utz ditzagun olatu kontuak, demagun... *sanktignatiusak* arte?–. Beno, badakizue, baja hartzerik ez duzue izango, baina ur asko edan –gezurra badirudi ere, deshidratatuta egongo zarete– eta zerbait hartu meningean hanturarentzako, besterik ezean alemaniarren beste edabe hori; buruko min ikaragarri hori ez zaizue kenduko, baina Sankto Thomas egunerako gutxiago faltako da. *Prost!* ...eta hondoraino! ■

Geldirik ez, behintzat

TESTUA: MAILLO OIARZABAL

ARGAZKIAK: MAILLO OIARZABAL ETA
UTZITAKOAK

Kirolaz eta naturaz gozatzen dakien horietakoa da Jexux Zelaia (Azpeitia, 1965). Atletia herrikoia eta arrantzale federatua izan da urte askoan, eta azkenaldi luzean, veteranoen sailera igarota, mendi lasterketetan sari bat baino gehiago lortu ditu. Umetatik datorkio naturan eta bere kabuz ibiltzeko zaletasuna, jakin-mina eta ikusmina pizten dio gaur egun ere ingurune naturalak, eta joera horrek eragin handia izan du bere ibilbidean, eta ez kirolean bakarrik.

"Txikitan, gure garaian, futbolaz gain ez zegoen ezer", dio, kirolarekin lehen hartu-emanak nola gogoratzen dituen galdetuta. Baina futbolarekin izandako esperientzia ez zen ez oso luzea, ez oso atsegina izan, nonbait, beretzat. Zelaiaren aitak entrenatzen zuen lagun taldearekin Zubiolan jokatzeko ziren txapelketetan parte

hartzen zuen, eta Zestoako talde baten kontra jokatuako partida bat ekarri du gogora: "Ni txikia nintzen, beste batzuei baino beranduago egin zitzaidan gorputza. Irten eta segituan, Zestoako taldeko jokalariei batek egundoko mutila-kristoren ostikada eman zidan. Eta han bukatu ziren nire futbolak". Korrika egitea gustatzen zitzaion orduan ere Zelaiari, eta futboleko lagunarteko txapelketak eta jokatzeko zitzutenean "fisikoki" lagunak baino "hobeto" moldatzen zen, baina kirol horretan ez zen haratago joan.

17-18 urterekin hasi zen atletismoan trebatzen, baina federatzerara iritsi gabe. "Julian Olano zen gure entrenatzailea.

**"NATURAREKIN
LOTURA DUTEN
GAUZAK" EGITEA
GUSTATZEN ZITZAION
ETA ZAIO**

Loiolan egiten genituen entrenamendu saioak", gogoratu du. Atletismoan urratsak egin ahala, pistan entrenatzeko zein lehiatzeko aukerak oso mugatuak izanik –"oso ona izan behar zinen horretarako"–, lasterketa herrikoien biderei eutsi zion azpeitiarrak. Pixkanaka eta denborarekin hango eta hemengo lasterketetan "pikatzen" joan zen, berak dioen moduan. "Azpeitiko maratoi erdia, Behobia... egiten hasi nintzen", kontatu du. Maratoi bat ere osatu zuen, Donostiakoa, baina ez du besterik korritu. Esperientzia bakar haren oroitzapen onik ez du: "Egundoko haizea ibili zen, hego haize zakarra, hesi guztiak bota zituen... Hiru orduetik jaistea lortu nuen, baina gaizki, sentsazio txarrarekin bukatu nuen. Anoetan, lasterketa bukatu eta freskagarri bat edan nuen. Hustutakoan, koska txiki baten ondoan zegoen zakarrontzira bota nuen potea, baina lurrera erori zitzaidan. Koska txiki hura igo behar



nuen, freskagarriaren ontzia jaso eta zakarrontzian uzteko, eta 'nola egin behar dut orain?', pentsatzen nuen. Ez neukan ezertarako indarrik".

Errepide gaineko lasterketa herrikoi askotan aritzen zen Zelaia, "baina ez zegoen mendi lasterketarik". Horrelakoak hedatzen hasi zirenean, ez zuen denbora asko egin probatu gabe. Eta probatu, eta gustatu; horretan jarraitzen du egun. "Askoz errazagoa" egiten zaio azpeitiarrari mendi lasterketetarako entrenatzea, "entrenigarriagoa" da beretzat mendian aritzea. Gogorragoa egiten zaio, aldiz, "Loiolan bueltaka edo Azkoitira joan-etorrian, erritmo berari eutsiz" ibiltzea. Zegama-Aizkorri mendi maratoia zortzi aldiz egin ondoren, inguruan "pixkanaka" antolatzen hasi ziren igoera bertikaletan ere probatzea erabaki zuen. Lasterketa luzeak eta bertikalak, biak tartekatuz ibili zen sasoi batean, baina prestakuntza aldetik-eta "desberdinak" zirelako eta "denera ailegatu

ezin" zuelako, bertikalen alde egin zuen azkenean Zelaia. "Inoiz ez dut sekulako mailarik izan", aitortu du azpeitiarrak, baina maila bertsuari denbora luzez eutsi dio, eta beteranoetan lehiatzeko uea iritsitakoan alde izan du hori. Entrenatzeko eta lehiatzeko "gogoa" ere mantendu du. "Minik hartu gabe, gogoarekin eta entrenatzeko denborarekin", hor darrai, 56 urterekin. Aurten, batez beste, astean bost-sei aldiz igo da Xoxotera; Izarraizko tontorrera egiten dituen joan-etorriak dira bere lansaio nagusiak. 2020ko udaberriko konfinamenduaren ondoren, 70 egunez jarraian igo zen Xoxotera: "Uztailean Asturiasen [Espainia] asteburu bat pasatzeko tokia hartuta genuen. Horregatik ez zen iritsi 71.a".

Arrantzan, beti

"Txikitatik asko ibili izan naiz arrantzan", dio Zelaia, bere beste zaletasun nagusia gogora ekarriz. Arrainez gain, txoriak "harrapatzen" ere aritzen zen

gaztetan; hegaztiak erakartzeko apeu edo erreklamoekin asko ibiltzen zen. "Etxean kaiolak neuzkan, eta kardantxiloak, tarinak... edukitzen nituen horietan". Ehizan ere aritzen zen, eta aritzen da oraindik ere, "oilagorretan, txakurrekin". Usotara joateak, esaterako, ez du erakartzen. "Ez zait gustatzen postuan jarri eta usoak etortzeko zain egote hori". Ehiza txakurrak eduki izan ditu eta badauzka orain ere, "setterrak". Ehizan ez ezik, txakur krosetan ere erabili izan ditu txakurrak; bere zaletasunetako bi uztartuta, sari batzuk irabazitakoa da arlo horretan ere, tartean, beteranoen mailako Txakurkros Liga. Beti zerbait, baina egonean egotea, ez. "Geldirik egote hori ez zitzaidan gustatzen. Nahiago izaten nuen pasierara joatea, edo mendira, perretxikotara edo dena delakora", dio.

"Naturarekin lotura duten gauzak" egitea gustatzen zitzaion eta gustatzen zaio, oro bat. Ikasketak aukeratzekoan



ere izan zuen zerikusirik naturzaletasunak. "Berez, Zoologia edo Botanika ikasi nahi nuen, Albaitaritzaren bidea ere hor zegoen... Baina horretarako kanpora joan behar nuen ikasketak egitera, eta gehienez, Bilbora joango nintzela erabaki nuen. Leioatik ez mugitzearren, Ekosistemen Biologia ikasi nuen". Irakaslea da azpeitiarra; oposizioetan matematikak irakasteko plaza lortu zuen, eta 2000. urtetik Azkoitia BHIIn ematen ditu eskolak. "Lan gogorra" dela dio, baina jende gaztea ezagutzea eta haiekin egotea "aberasgarria" zaiola ere bai: "Behobiaren parekoa dela esaten dut nik. Behobiak beti 20 kilometro, eta guk urtero urte bat gehiago. Nire kasuan, ikasleek beti 15 urte, eta nik urtero urte bat gehiago".

Arrantza da inoiz utzi ez duen afizioa: txikitik piztutako zaletasuna garatzen joan da urteekin, eta aurten arte, ez du

gogoan txapelketaren batean parte hartu gabeko urterik; Zumaia Anade elkarteko kidea da. 18 urterekin hasi zen txapelketetan parte hartzen, modalitate ezberdinetan, eta 2001ean Euskadiko bi txapelketa irabazi zituen, kanabera motzarekin zein latigoarekin. Lorpen bikoitz horren aitortza jaso zuen herrian, Azpeitiko Udalak urteko kirolari aipagarrienen artean saritu baitzuen. "Herrian saria emateak ilusioa egiten" duela dio Zelaiak; arrantzan lortutako txapelengatik jaso zuen sari hura lehendabizikoa izan zen, ondoren mendi lasterketetan egindako lanagatik ere saritu baitzuten. Heriotzarik gabeko arrantza praktikatzan du aspalditik, eta "arauak betetzea" gustatzen zaio; isileko edo ezkutuko arrantza jardunak ez ditu gustuko. Ingurumenarekiko, bereziki erreken eta ibaien egoerarekiko, "kontzientzia"

lantzeko ere balio izan dio Zelaiari kirol jarduerak naturan garatzeak; behin baino gehiagotan salatu izan ditu inguruko ibaietan gertatutako isurketak edota bestelako egoera kaltegarriak. Errezil erreka da beretzat arrantzan aritzeko leku kutunena; "han ikasi nuen nik arrantzan, neure kabuz", gogoratu du.

Ibaiak eta mendiak eskura

Mendira nagusiki korrika egitera joaten da aspalditik, baina udazken sasoiaren perretxikotan ibiltzea ere gustatzen zaio, hori ere badago-eta Zelaiaren zaletasunaren zerrendan. Sarri bi jarduerak batzen dituela dio: "Korrika igo, baina beherakoan makalago joaten naiz, perretxikoak non dauden begiratu. Etxekoek jateko tortilla bat egiteko lain topatzen badut, gustura". Xoxoteko bidean topatzen duen zaborra jasotzen ere gelditzen da



batzuetan; azkenaldian maskarak topatzen ditu sarri. "Orain gutxiago, baina iazko konfinamenduaren ondoren dezente jasotzen nituen. Ez dut uste nahita botatakoak direnik, gehienak jendeari eroritakoak direlakoan nago", esan du.

Aire zabalean eta naturarekin harremanetan ematen ditu Zelaiak lanetik kanpoko ordu asko, baina ez bakarrik kirola egiten. Azken urteetan, baratze lanean trebatzeko aukera ere izan du. Emazteak proposatuta hartu zuten lursaila, herrian baratze parkea martxan jarri zutenean, eta biak aritzen dira baratzezain. "Gustatu egiten zait, eta ordu dezente pasatu ditut han aspaldian". Baratzekeo fruituak hazietatik hazten ikustea da gehien gustatzen zaion gauzetako bat. "Lan gehiago eskatzen du tomate hazietatik zeuk landareak

ateratzeak, landareak erosteak eta landatzeak baino. Baina aurten, esaterako, etxean jan ditugun tomate guztiak hazitik ateratakoak izan dira".

Etxean, "lasai" egotea gustatzen zaio. Irakurtzen edo telebista ikusten duenean, gaurkotasuneko gaiak jarraitzeko izan ohi dela dio, "zer gertatzen ari den jakiteko". Kalera irteten denean ere, lasai ibiltzea da bere hautua, gero eta gehiago. Tabernaz taberna ibiltzea gaur egun beretzat "tortura bat bezala" dela aitortu du, eta egungo egoerak, pandemiaren ajeek, areagotu egin diote sentipen hori. Emaztearekin edo bakarrik kafe bat hartzera ohitu da, eta hortik aurrerakoek ez dute batere erakartzen, "orain, ja, ez". Familiarekin "plan lasaiak" egitea du gustuko. Seme-alabak beren aldetik gero eta gehiago ibiltzen hasi direnetik, ordea, horrelako planak egiteko "laurak elkartzea gero eta zailagoa" dela aitortu du: "Azkenean, lehengo bikote egoerara bueltatzen ari gara, baina askoz zaharrago".

Festazalea ere, izan baino izandakoa dela esan daiteke. Herriko festa "denak" asko eta ondo gozatutakoa da Zelaia,

BARATZETAKO FRUITUAK HAZIETATIK HAZTEN IKUSTEA DA GEHIEN GUSTATZEN ZAION GAUZETAKO BAT

baina urteekin horiek bizitzeko modua aldatzen joan zaio. Hainbat urtez mazolari atera izan zen prozesioetan. Sokamutur zalea da, eta zezenketa zalea ere bai, baina hori ere, izandakoa gehiago. "Horrenbeste ez zitzaidala gustatzen ikusi nuen momentu bat ailegatu zen. Ez dakit orain nola izango diren gauzak, asko deskonektatu dut eta, baina garai batean zezenari indarra kentzeko neurriak hartzen hasi ziren, adarrak mozten...". Sansebastianetako danborradan urte askotan parte hartutakoa ere bada, 2007ra arte. Urte hartan, beste bati utzi zion Zokoa elkarteko bere jantzia; ama larri zegoen eta handik gutxira hil zen. Harrezkero ez da irten danborradan, eta ez daki berriro irtengo den. "Festetan nire kupoa bete nuela uste dut, ondo beteta, gainera, eta oroitzapen onak besterik ez dauzkat".

Ibaiak eta mendiak eskura izango dituen parajeak dira Zelaiarentzat gustuko plana diseinatzeko leku aproposak. Bazterrak ezagutzeko aukera emanda, ez da "monumentuak ikustera eta" joan zalea, baina bai "natura, mendiak edota kobazuloak". Mendi lasterketetan parte hartzeko egiten dituen irteerek berari gustatzen zaizkion moduko leku berriak ezagutzeko aukera eman diote; Jaengo (Espainia) Albanchez de Magina da horien artean gehien harritu dutenetako bat. ■■■

Gure hitzak



IONE GURRUTXAGA

Lau urte egin nituen hots, silaba, hitz, esaldi eta liburu artean buru-belarri sartuta. Esango nuke orduan piztu zitzaidalda guztiz kontzientzia linguistikoa, eta orduantxe hasi izango nintzen inguruan nuenaren balioa benetan ulertzen, baina ez soilik gure hizkuntzaren argi-itzalak aztertzen pasatzen genuelako eguna, baizik eta herritik irten, Euskal Herri zabaleko jendearekin elkartu, eta euskarak beste eremu batzuetan zer toki zuen ikusi nuelako. Eta, Gasteizen egin nituen urte haietan, halako harrotasun puntu bat eragiten zidan azpeitiar izateak, ingurukoen begietara euskara bizi-bizirik zegoen herri batean bizi bainintzen. Baina herrira itzuli, errealitatearekin topo egin, eta sentipen gozoak behin baino gehiagotan mikaztu zitzaizkidan.

Garai hartan eman zuten ondoko datu hau telebistan: Azpeitia da 5.000 biztanle baino gehiagoko munduko herririk euskaldunena. Eta, nola ez, gogotik saiatu ginen hori lau haizeetara zabaltzen: paparra puztu, eta elkarrizketa askotan atera genuen gaia, behingoagatik Euskal Herrian barrena gure herriaren izen ona zabaltzeko zerbait handia bagenuela pentsatuz. Baina titulu hori hiztunei esker bakarrik iritsi al zitzaigun?

Egoera aztertzen hasita, ezin uka daiteke zortea geure alde izan dugula: herri euskaldun batean jaio gara, euskaraz bizitzeagatik beldurrik sentitu behar ez dugun garai batean; mendiz inguratuta, turismo masibotik babestuta egon gara, eta, gure aurrekoek maitasunez egindako lanari esker, hizkuntza bizi-bizia jaso dugu. Horregatik guztiagatik, gure egitekoa bat eta bakarra da: sehaskan edo eskolan jaso dugun horri eustea. Eta, hala eta guztiz ere, batzuetan nahikoa lan izaten dugu.

Norbaitek pentsatu du honezkero: zer dela-eta halako matraka orain hizkuntzaren inguruan, erabilera aztertzeko azken kale neurketako datuak onak izan baziren? Hala da, 2016ko azterketaren arabera, Azpeitiko kaleetan entzundako hamar elkarrizketatik zortzi (%81,8) euskaraz ziren 2016an; beste herri euskaldun batzuekin alderatuz gero, oso datu ona. Baina pixka bat atzera egin, eta horra hor kezkatzeko lehen zantzua: 2009ko azterketaren arabera, kalean entzundako elkarrizketen %86,1 ziren euskaraz. Hori ikusita, hurrengo datuen zain geratu beharko dugu, ea mundua hankaz gora jarri zaigun garaiotan azterketa horrek erakutsitako joera buruz behera jarri ote dugun jakiteko.

Oraintxe bertan, ordea, ez logeke gaizki kantitatea pixka

batean ahaztu eta kalitateari begira jarriko bagina. Zenbakiei dagokienez, munduko onenak garelako esan genezake, baina aspaldian gaztelaniaren morroi bihurtzen ari garelakoan nago. Gauza jakina da hizkuntzak etengabe aldatzen direla, hiztunak garai berrietara eta garai berri horietako ohituretara moldatzen baitoaz, eta, jakina, hiztegia sortu, beste nonbaitetik hartu edo moldatu egin behar da ezinbestean. Baina aspaldian halako beharrik gabe jotzen dugu gaztelarera, urrutiko intxaurren bila-edo, euskal egiturak desitxurateraino: “*Si esan dizut hori dela a lo atzoko ariketa*”. Halakoak gero eta ohikoagoak dira gure gazteen artean, baina guztiona da horren erantzukizuna: saiatzen al gara gure aurrekoek gauzak nola esaten zituzten jakiten?

Harrokeria utzi, eta harrotasuna indartzeko garaia iritsi zaigu: jarrai dezagun euskaraz kalean eta etxean, bai herrian eta bai kanpoan, baina entzun diezaiegun gure zaharrei, entzun ditzaigun haiek esateko dituztenak eta esateko dituzten moduak, bide horretatik bakarrik lortuko baitugu Lazkao Txikik esana egia ez bihurtzea: “Martxa honetan, aurki erdaraz hitz egingo dugu euskaraz ari garelakoan”. ■■■

AZPEITIAK

bat gehiago



**BATU UZTARRIAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



EDUKIEN SORKUNTZA

• EDUKIEN SORKUNTZA EUSKARAZ ETA
GAZTELANIAZ, HAINBAT EUSKARRITARAKO.

- COPYWRITING DIGITALA.
- EDUKIEN MARKETINA.
- STORYTELLING-AK.



GUKA       ZERBITZUAK



Leku batzuetan, lau begi

Azpeitiko errepideetan badira arazoak sortu ohi diren zenbait gune. Ikusgaitasuna urria delako, ondo seinaleztatu gabe daudelako, edo besterik gabe, leku aldrebes samarrak direlako, kontuz gidatzea komeni da eremu batzuetan. Puntu ilun horietako batzuen bilketa egin du Uztarriak. Argazkiak eta testua: **Ihintza Elustondo.**



'STOP!'

Burdinbidearen Euskal Museoaren aurrean, *Stop!* seinalearekin topo egiten dute herrigune aldera sartu nahi dutenek, irudiko autoak bezala. Dena den, Perez Arregi aldetik maldan gora etorri ohi dira ibilgailuak, eta gaineraino etorri arte, *stopean* geldituta dagoenak ez du ikusten autorik badatorren edo ez. Era berean, aldapan pixka bat beherago joanda kokatzen den bidegurutzean, hainbat norabide, zebrabidea, bidegorria nahiz autobus geltokia daude, eta nahasmena sortu ohi da.



BIGARREN ILARAN

Burdinbidearen Euskal Museoaren inguruan bada arazoak sortu ohi diren beste gune bat. Hain zuzen ere, Urola kalean hainbat auto egon ohi dira bigarren ilaran aparkatuta, eta kaosa sortu ohi du horrek.

AUTOBUSEK LEHENTASUNA

Foru Pasealekuan, BM supermerkatuaren parean, ibilgailu ugari ibili ohi dira joan-etorrian. Dena den, errepidea nahiko estua da, eta kamioi edo autobus handiren bat etorritz gero, ez dira ondo kabitzen bi ibilgailu. Horregatik, seinaleak daude jarrita zebrabidearen ondoko horman: batetik, ibilgailu handiren bat baldin badator, hark lehentasuna duela eta auto gidariak gelditu egin behar duela jakinarazteko, eta bestetik, 3,5 metro baino altuago diren ibilgailuak ez direla sartzen adierazteko.



NOIZKO ATERA

Loiola inguruan ere arazoak sortu ohi dira. Munategiko biribilgunea zen lehen puntu ilun bat, baina hango arazoa konponduta, Forum saltokiaren parean sortu ohi da orain katramila. Izan ere, saltoki horren aldetik Azpeitia aldera hartu nahi izanez gero, askotan denbora pila bat zain egon behar izaten dute auto gidariek, trafiko handia ibili ohi delako. Beraz, badira Azkoitia aldera hartu eta Munategiko biribilgunean buelta hartzen dutenak ere.



LANBIDEREN PAREKO SARRERA-IRTEERA

Lanbide kokatzen den gunearen parean, herrira sartzeko eta irteteko gune garrantzitsua dago. Hainbat bide elkartzen dira bertan, eta ibilgailu ugari ibili ohi da inguruan. Arretaz gidatu beharreko gunea da hori, norberak bere maniobra ondo egin dezan.



BIRIBILGUNEA OKER

Danona lantegia zenaren parean, maldan eraikitako biribilgunea dago, eta auto gidari askok hartu dituzte sustoak bertan. Izan ere, euri pixka bat egin badu, irristakor egoten da eremua, eta bat baino gehiago dira Zestoa aldera zihoazela Azpeitia aldera begira gelditu direnak, autoak ihes egin eta gero.

50 KILOMETRO ORDUKO, GEHIENEZ

Lasaoko errepide nagusian, 50 kilometro orduko abiadura gida daiteke gehienez; hala adierazten dute seinaleek. Dena den, zuzen-zuzena da bidea, eta gidari asko gehienezko abiadura muga gaindituta ibili ohi dira.



Mendi bide estuak

Herrigunetik kanpoko auzoetan eta baserri inguruetan hainbat mendi bide daude, autoentzat baliagarriak diren arren, nahiko estuak direnak. Enparangain auzotik gora, adibidez, aldapa handia eta bide estua dago, eta ez dira bi auto elkarren ondoan kabitzen. Goraka zoazela goitik behera autoren bat tokatuz gero... arazoak.

SUHILTZAILEEN PAREKO BIDEGURUTZEA

Suhiltzaileen pareko bidegurutzean, saihezbidea eta Goenara nahiz Loiolara doazen bideak elkartzen dira. Trafiko handiko gunea da, eta ibilgailuren batek saihezbide nagusitik Meola aldera hartu nahi badu, argazkiko auto grisak bezala, zain egon behar izaten du askotan. Halakoetan, auto ilarak sortu ohi dira. ■■■■



SOKA LUZEAN



MIEL A. ELUSTONDO

Arkupeak

Hauxe idazten ari naizenean, oraindik ez da urria joan, baina alferrik da. Ez gara egundaino zentzatu. Hor ari ginen gimnasia, eta, betiko tirria, tzunda-tzunda-tzunda... kalitaterik oneneko musika jarrita gure entrenatzaileak. Ez dago urrutira joan beharrik. Zumaiarra. Gorbeia magalean, zumaiarra guri ariketak agintzen, tzunda-tzunda-tzunda merke txarrenaren erritmoan. Arrimuan. Ezjainkoen zigorra. "Hi, Erlantz, nondik atera duk zarata hori?". "Musika? Internetetik... Gustatzen?... Ala ez gustatzen?". Gizajoa ez da konturatu ere egiten zer aditu behar izaten dugun. Urria bukatu ez, eta hantxe ari da tzunda-tzunda ingelesez, *christmas* gora eta *christmas* behera. Antojagarria. Gogaikarria.

Hauxe idazten ari naizenean, hilberri zaigu lagun bat Portugaleten. Bihotza burua baino handiagoa daukan horietako bat. Getariarra. Kaxildo zuen izena. Hortik atera noizkoa zen gure adiskide laguna. Ez, behintzat, Aimara, Aimar, Ainara, Enara, Enar... eta gainerakoen garaikoa. Hizketan gozo eta bulartsu, itsasoko gesalaz bustita ateratzen ziren hitzak haren ahotik, gozo. Desagertzeko arriskuan dagoen espeziekoa, Kaxildo. *Giza zirriborroa* idatzi

zuen 1972an, garaian eskribitzen ez zen bezalako liburua. Apaletan begira hasi eta laster aurkitu dut. Zabaldu dut, eta zeharo ahaztuta neukana, hark berak sinatuta daukat, letra txukun: "Azpeitiko plazako arkupeetako elkarrizketak jaso ahal izanez gero, e?". Arkupeetara eraman nau Kaxildok.

"Ene herriko plazak arku asko ditu / eta hala ere / bere begi goibeletan ez da inor galdu / arku asko ditu / eta behin ere / ez dute aurkitu / ziba gaztearen buruko txintxeta / Babelgo dorrearen behe / ene herriko plazak arku asko ditu / bere habe artean haurren jolasa gordetzen du". (Jose Luis Otamendi)

Hauxe irakurtzen duzuneko, herriko plazako arkupeetan izana izango gaituzue, hainbat musikari, idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta aktore, kultur plaza aldarrika, ondo bizi nahi dugula orroka, eta, inor baino hobeto ez bada ere, duintasunez, behintzat. ■

**DESAGERTZEKO
ARRISKUAN DAGOEN
ESPEZIEKOA, KAXILDO.
'GIZA ZIRRIBORROA'
IDATZI ZUEN 1972AN**

BOTEPRONTOAN



AINTZANE GARMENDIA


Hormaren beste aldean

Badakigu aho itxian ez dela eulirik sartzen, baina umetan euliei beldurrik ez eta gurasoei hamaika galdera egiten nizkien: "Zer da hau?". "Eta bestea?". "Zer esan nahi du seinale honek?". "Zergatik egiten da hori?". Eta abar luze bat. Baina ez da aski erantzunak jakitea, gero horiek gaizki erabiltzen badira edota horiekin taxuzko ezer egiten ez bada.

Norbere egiaren bila gabiltza borrokan une oro, han edo hemen gure burua non kokatuko. Zer desberdina den kanpotik edo barrutik begiratu, badago alderik txanpona goitik ala behetik jaurti, guztiz bestelakoa ikuspegia erdian edo bazterrean kokatu; eta norbaitek begiak ireki nahi ez baditu? Beti barruan dagoena ez da sekula kanpokoaren azalean jarriko, inoiz behera jaitsi ez denak ez du zoru hotza sentituko, eta begiak irekitzeko ausardiarik ez duenak ez du bere burua engainatu besterik egingo.

Inoiz baino informazio iturri gehiago ditugun garai honetan, jada herrian harresi fisikorik ez dugun arren, asko dira oraindik gure artean dauden egia ustelak eta horma faltsuak. Begiak zabaltzeko unea da, hormaren beste aldean dugunari entzun eta hari eskua luzatzekoa. ■

MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA  ZERBITZUAK

Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) 943-81 38 41 • gukazerbitzuak@ukt.eus

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com